

Karkara

karkara.eus

 **Orioko eta Aiako aldizkaria** • 2019ko urtarrilaren 25a • 402. zenbakia



"Alkate izan nahi nuen berriro"

Jose Angel Zalduak bere bulegoan hartu gaitu legealdi honetako balantzea egin eta alkate moduan bizi duen esperientzia kontatzeko.



Orio garART

MATRIKULAZIO EPEA:
urtarrilaren 28tik
otsailaren 8ra

BULEGO ORDUTEGIA:
08:30-13:30 / 14:30-18:30
Tel.: 943 834 704 / 943 894 360

e-posta: orio@ikastola.eus
www.oriokoikastola.eus



Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea
20810 Orio
943 83 15 27

karkara@karkara.com
www.karkara.eus

Editorea

Karkara taldea
 kultur elkarte

Erredaktore burua

Ainara Lasa

Erredakzio taldea

Jon Agirresarobe
 Onintza Aiestaran
 Miriam Garcia
 Iñigo Exposito
 Iñigo Gaiton
 Jon Garate
 Elizabete Manterola
 Intza Unanue
 Rikardo Uzquidun

Publizitatea

Sonia Albizu

Zenbaki honetako

kolaboratzaileak
 Egoitz Dorronsoro
 Iñaki Iturain
 Maria Eugenia Atxega

Diseinua

Saioa Perona

Banatzaileak

Endika Ruiz (Orio)
 Eli Irureta (Aia)
 Naroa Miralles (Orio)

Inprimategia

Antza SL. (Lasarte-Oria)
 Lege gordailua SS-346/90
 ISSN 1132-1105
 Tirada 3.450 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik. Karkaran argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada

TOKIKOM

**LAGUNTZAILEAK:**

Aiako Udala



Orioko Udala

Gipuzkoako
Foru Aldundia

Hasi bertsotan atalean puntuka arituko dira bertsolariak. Oraingoan Amagoia Iribarri jarri dio puntua Joseba Olidenek: *Zer ikuspegi dago barraren atzetik?* Hurrengoari ere jarri dio puntua.

PUNTUA JARRITA**AMAGOIA IRIBAR** (DOINUA: XARMAGARRIA ZIRA)**1****Zer ikuspegi dago barraren atzetik?**

askotan ez da ikusten
 bate gauza onik;
 egarrik ez duen
 mozkorra batetik,
 musika aldatzeko
 DJ-a bestetik.

3

Etxera joateko
 ai zenbat komeri,
 uste baino zailago
 izaten da hori;
 batzuk ligatzen eta
 besteak kantari,
 ezin pakea eman
 tabernariari.

2

Goizeko hiruretan
 zenbat konfiantza,
 Regetoya entzun da
 ene zenbat dantza,
 trikitixa jarrita
 gazte danak hanka,
 ez dakigu zer jarri
 hori da zalantza.



Gazteak San Nikolasetan, jai giroaz gozatzen. JM.OLASAGASTI

Hurrengo bertsolaria:

Eider Goiburu

Puntua:

Martxoaren zortzian
 guztiok batera



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
 POLITIKA SAILA

Kabalgatarekin pozik

Badirudi atzo zela Errege kabalgata antolatzen hasi ginen eguna. Eta nork esan behar zigun horrenbeste lan zegoenik kabalgata baten atzean?

Hala ere, elkartu ginen boluntarioei eta denok egindako lanari esker, aurten ere Orion kabalgata ospatzea lortu dugu. Eta ez nolanahikoa gainera!

Aldaketa batzuk egin ditugu eta oso pozik gaude emaitzarekin. Esaterako: zaldien orde batelan iritsi ziren Erregeak; haurrei berengana gerturatzeko aukera eman zitzaien ikastolako pergolan; panderoen eta danborren borrokarekin amaitu dugu...

Hau ordea ez da hemen bukatu. Datorren urtean hobekuntza gehiago egiten saiatuko gara eta urtetik urtera ikusten ditugun akatsak aldatzen.

Beraz, hurrengo urterako, jendeak laguntza eman nahiko balu, besozabalik jasoko ditugu. Orioko kabalgata herritar guztion artean egin beharreko zerbaite baita!

Besterik gabe, zorionak denoi!

• **Kabalgatako antolakuntza taldea.**

Bezeroentzat: denon artean, berrerabili eta birzikla dezagun!

Zuengana zuzentzen gara gutun honekin, plastikoa murrizteko eguneroko konpromisoa eskatzeko asmoz.

Jakina da, egun, plastiko gehiegi kontsumitzen dugula, urteak daramatragu erosketa bakoitzeko zorro berria etxeratzen.

Horregatik, garai batean erosketarako otarrak erabiltzeko ohitura nolabait berreskuratzea eskatzen dugu. Bezeroak etxetik poltsarekin irteeta kalera.

Horixe litzake plastikoa murriztu eta birziklapenean pausu bat emateko aukera.

Adeitasunez,

• **Gozategi Frutadenda.**

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo erre-dakziora eskura ekarri -Orioko edo Aiako Kultur Etxean- edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizena-ekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunarekin egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

San Silvestre eguneko umeen lasterketaz

Urtea amaitzeko modu polita eskaintzen digu San Silvestre lasterketak. Heldu zein ume, gustura egiten dute korrika lasterkariek eta gainerako herritarrek gogotsu egiten diete txalo.

Umeen lasterketan domina bana ematen zaio parte hartzen duen ume bakoitzari. Umeak kirola egitera bultzatzeko keinu bat da dominak banatzearena, eta badu bai estimazioa txikienean artean.

Jakina izaten da parte hartuko duten haur guztientzako izango dela domina; gure semea, baina, batere gabe itzuli da etxera aurtengoan, bigarren.

Muntotik barrena autopistako zubi azpira joan eta handik buelta egiteak badu nahikoa meritua eta gutxi batzuk besterik ez dira bost urte motzekin halako ahalegina egin eta lasterketa amaitu dutenak.

Lasterketa osorik amaitu dutenekin batera, ibilbidearen zati bat besterik egin ez duen ume kopuru handiago bat ere iritsi zen helmugara. Lasterketan zetozen lehen umeak paretik pasa eta lasterketa barrura sartu ziren.

Bakoitzak bere neurrian, denek

korrika egin eta lasterketan parte hartzea gauza ederra da, eta helmugara iritsi eta korrikalari sentitzearen satisfazioa umeen aurpegietan ikustea ere bai. Zentzu horretan, denek saria jasotzea bidezkoa eta zuzena iruditzen zait.

Ibilbidea osorik egin zuten umeak zati bat besterik egin zuten ume gehien atzetik iritsi ziren, tartean gure semea.

Lasterketa hasi eta buka egitea-ekin gustura eta amaierako saria jasotzeko irrikaz iritsi zen. Hara baina, udalak aurreikusitako domina kopurua ez zen ume guztientzat nahikoa izan eta batere gabe geratu zen. Hura dezepzioa!

Antolakuntzari begira, zer hobeturi badela iruditzen zait. Lasterketan parte hartzeko izena eman behar izaten da aurretik. Izena ematean ez da zehazten ibilbidea osorik egingo den edo ez, eta osorik ez egitera zenbaitek ez du izenik ematen.

Horrekin, baina, ezin jakin zenbat ume iritsiko den helmugara eta zenbat domina partitu beharko diren. Hori dela eta, agian komeni da guztiek izena ematea domina kopurua behar bezala kalkulatzeko.

Ez nuke nahi gure semearen tristura beste inolako umeren aurpegian ikusi datorren urteko lasterketan. Gehiegi eskatzea ez bada, domina kopuru handiago bat izan beharko luke udalak edo dominak kalkulatzeko neurri egokiagoren bat bilatu, ume guztiek jaso dezaten ondo merezitako saria.

Zer esanik ez lasterketa osorik egin duten gutxi horiek. Izan ere, gure semeaz gain beste ume batzuk ere izan baitziren domina gabe geratu zirenak. • **Guraso bat.**



**EGIN ZAITEZ
KARKARA
LAGUNTZAILE**

Urteko kuota: 36 €

Izena

Abizenak

NAN

Helbidea

Telefonia

Eposta

Kontu
korrontea

**Bete formularioa eta erredakziora ekarri edo
karkara.eus/harpidetza helbideko formularioa bete**

Akatsak zuzentzen

KARKARAren 491 zenbakian akats bat egin genuen. Ikasleak Idazle atalean, Orioko Herri Ikas-
tolako Nerea Uranga ikaslearen iritzi artikulua ez zen argitaratu. Barkamena eskatu nahi dugu egindako hanka sartzeagatik. Web atarian sartuko dugu ikaslearen iritzi zutabea.

JAIOTAKOAK

- Mare Betanco Rodriguez, abenduaren 18an.
- Enetz Larrañaga Iturralde, abenduaren 20ean.
- Bilal Bourass Oulad M'Hand, abenduaren 27an.
- Uhaizt Olasagasti Erasun, urtarrilaren 2an.
- Daba Siny Ndoye, urtarrilaren 8an.
- Ian Bersaluce Otegui, urtarrilaren 15ean.
- Iur Olazabal Elizondo, urtarrilaren 15ean.

EZKONDUTAKOAK

- Iñigo Ubarretxena Ansa eta Ianire Lazkano Esteban, urriaren 27an.

HILDAKOAK

- Juan Larrañaga Etxeberria, Orion, urtarrilaren 1ean. 86 urte.
- Jaime Manterola Agote, Aian, urtarrilaren 4ean. 80 urte.
- Antxoni Lertxundi Larrañaga, Orion, urtarrilaren 6an. 70 urte.
- Juan Ignazio Amilibia Indo, Aian, urtarrilaren 14an. 86 urte.
- Xiriako Arruti Arruti, Orion, urtarrilaren 18an. 58 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoan-garria KARKARA jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:

943 83 15 27



Meltxor, Gaspar eta Baltasar Aian. AIORA LARRAÑAGA

R-aren hilabetea

“Beharra dagoenean, herritarrak edozer gauza antolatzeke gauza gara, nola Aian hala Orion.”



Imanol Alguacil Realaren partiduan. LALIGA

Zer dute amankomunean Anjel Lertxundik, Maialen Lujanbiok eta Imanol Alguacilek? Bai, kirrimarra edo erre berezi hori, txikitatik bereizgarri zaien r-a ahoskatzeko modu partikular hori. Ba, esan dezakegu, urtarrila R-aren hilabetea izan dela, aurtan inoiz baino nabarmenago.

Urte berri eguna hor nonbait pasa zen, eta iritsi zen Errege eguna. Aurtan Erregeak autobusez etorri ziren Aiara eta trainerillan Oriara, eta, bistan geratu da, berriz ere, beharra dagoenean herritarrak edozer gauza antolatzeke gauza garela, nola Aian hala Orion. Hala eta guztiz ere, ez dago zalantzarik, aurtan Andoaingo Erregeek eman dutela zer esanik handiena. Aupa Amadou!

Baina Errege eguna eta oporrak bukatu baino lehen, Imanol Alguacilen taldeak eman zigun poza, Realak Real Madrid-i irabazi zion Santiago Bernabeu zelaian, Madril bertan.

Gero etorri dira ezkaratz, garaje, soziedade eta elkarreetako urteko batzarrak. Tartean gurea, Karkararena. Orriotan, aurrerago, topatuko duzue batzar horrek ekarrituen nobedadeen berri.

Eta holaxe, konturatzerako iritsi da danborrada, igandearekin aurtan. Donostian danbor hotsak zirauten bitartean, Aian harri hotsa entzun zen San Sebastian egunean. Badu tiradizoa gurean harri-jasotzeak, ondo bete omen zen dema plaza.

Ez diguzue esango, kirrimarra dutenen kalterako, urtarrila ez denik R-aren hilabetea izan: Erregeak, Realak, batzarrak, danborrada, harriak eta... Urtarrilaren 3 R-ak, baietz? Sagardoa edan eta joango zaizkigu ezin guztiak. Txotx!



Gorka Etxeberria, Aiaiko harri-jasotze jaialdian. IBON ERRAZU

Nola joan da Aiako harri-jasotze jaialdia ?



“Emanaldi ederra eskaini dute”

Erronka izugarria izan dute denek. Bakoitza bere marka pertsonala haustera joan da, eta ikustaldi ederra eskaini dute.

Ederra da ikustea Aiako dema plaza beteta. Horrelako emanaldiak bizitzeko leku zoragarria da hau. Ikuskizun aparta eskaini digute harri-jasotzaileek.

Aipatzekoa da baita Aiako eta Orioko gazteek kirol honetan erreleboa emateko egiten ari diren lana. Etorkizuna bermatua dago bai

Aian baita Orion ere harri-jasotzean egiten ari diren lanari esker.

Joseba Odriozola



“Jendeak asko animatu du”

Senarrak esan zidanean “ni 235kg-koarekin saiatuko naiz” astakeri bat iruditu zitzaian. Eguna joan. eguna etorri, urduritasuna agertzen hasi zen.

Espero baino jende gehiago hurbildu da Aiako plazara, horrek urduritasuna bikoiztu du. Giro oso ona egon da baina nik pena bakarra daukat: Gorkak bere marka pertsonala egin ez izana, izatez gai da, mutil oso gogorra da.

Zorionak marka egin dutenei, jaialdian parte hartu dutenei eta nola ez eskerrik asko ikusle guztiei bertara hurbiltzeagatik. Beren animoak garrantzia handia dute.

Naiara Jaka



“Dema plazak zerbait berezia du”

Horrelako jaialdi batek aukera handia ematen ditu harrijasotze munduan dabiltzanen lana ikustarazteko. Elitean ez daudenentzat, gutxi ibili edo bidea egiten hasi direnentzat plazaratzeko aukera oso polita da. Azken batean, etxetik izandako afizio hori, edo ikusi dutena, ateratzen laguntzen du. Gainera, giro oso polita egon zen, gazte asko joan zen Aiako dema plazara.

Antolatzaileei esango nieke horrelakoak egiten jarraitzeko, aukera zabaltzen badute gazteek aprobetxatu egingo dute eta, prestaketa gisa.

Ibon Errazu

Mundua ulertzeko era bat



Egoitz Dorronsoro

Dirudienez ez da erakargarri astero bilera egiteko formatua eta horrek, kideen kopuruaren beherakada dakar. Herria herritarrok eraikitzen jarraitu nahi badugu, gune autogestionatuak defendatu behar ditugu.

Azken aldian gaztetxe eta gune okupatuei egin dizkieten erasoak izan dira testu honen ildoak erabaki dutenak; zehazki, Donostiako *Keji-ra* eta Iruñeako *Maravillas* gaztetxeak zein Gasteizko Talka espazio feministaren aurkako erasoak. Orain 55 urte Larrabetzun lehenengo gaztetxea okupatu zenetik, egun 130 baino gehiago dira gaztetxe eta espazio okupatuek, eta urtero jasan dituzte orotariko erasoak. Desalojoak, itxierak, miaketak, udal agintarien mila trikimailu ... Hala ere, espazio hauek, imajinazio, lan eta konpromiso handiarekin erantzun izan dute maiz, helburua lortu ez arren.

Urte hauetan guztietan, belaunaldiz belaunaldi, txikitasantetik eragitea izan da oinarria. Hutsik ezer ez dion eraikina, esanahiz eta identitatez josiz. Unean uneko partaideek etengabe espazioa birsortuz. Bertan mila istoriok, bata besteari loturiko bizitzek, arnasa emanik eraikinari. Autogestioa oinarri, lekuan lekuko ñabardurekin sortu da kultura eta hau partekatze bide berriak jorratu dira. *Maravillasen* aldeko aldarriarekin bat eginez “Ez da gaztetxe bat, mundua ulertzeko era bat baizik”.

Ikuspegi merkantilista alboratuz, etengabeko hausnarketa bidelagun, paradigma eta errealtate berriei erantzutea izan da funtsa. Tokian tokiko beharrak eta nahiak betez. Herri bakoitzeko eragile eta norbanakoentzat erabilgarri izan behar dute gaztetxeak.

Badago ordea gaztetxea erakargarri edo interesgarri egiten duen “gabezi” zikliko bat, jenerazio aldaketa. Dirudienez ez da erakargarri astero bilera egiteko formatua eta horrek, kideen kopuruaren beherakada dakar. Hala ere, honek ez du esan nahi beste formatu praktikorik ez dagoenik, baina, hau bilatzea herritar ororen ardura da.

Beraz, herria herritarrok eraikitzen jarraitu nahi badugu, gune autogestionatuak defendatu behar ditugu. Eraikitze eta berreraikitze auzolana izanik tresna, eraikinak esanahiz betetzen jarraitu behar dugu. Denok daukagu zer borrokatu eta landu gizarte parekideago bat sortzeko.

Beraz, guri oriotarroi, *Etxeluze* esanahiz betetzea egokitzen zaigu. Zortzi urte hauetan horretan ibili ondoren ere, oraindik bada zer gozatua.



eduretegia
ANTILLA
julekua

Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 23 00

Gabon
TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitartekoak

943 83 06 09

ARISTERRAZU
jatetxea

Andatza auzoa - AIA
Tel. 943 83 45 21

arkaitz taberna
... uio ...

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

Terraza ederrarekin
giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943 831 657

KOLON TXIKI
eduretegia
julekua

Herriko Emparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

ITZALA
kartetan jokatzeko
apropia

tel. 943 83 12 59

SU KIA
TABERNA JATETXEA

On egin eta gero... hartu KOPA eta TOPA!!

- OILASKO EHREAK ERAMATEKO
- EGUNEKO MENUA
- EGUNKARIAK
- OGIA

TF. 943 832 128
ABESLARI KALEA, 1. BARRIOA

Portu
ERRETEGIA

Santo Erreka Auzoa, 216
943 89 44 34
20809 AIA-ORIO

lurrik lurrak alkatu
pinillo erditu ezin

kutixi
kafetegia
GOSARI GOXOAK

Antzaga 9, 20810 Orio
Tel. 943 13 15 17

ETXKO BEREZITASUNAK
ARRAIN ZOPA
PARRILA

BODEGON SARASUA
ERRETEGIA

Eusko Gudari Kalea, 29-20810 ORIO - Tel.: 943 83 00 05

ASADOR XIXARIO

Eusko Gudari Kalea, 2
Tel. 943 830 019 - ORIO

egin zaitez laguntzaile

Karkara
kafetegia

PIZZERIA
KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10
TELEFONOA: 943 24 89 46

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAK

943 83 05 37 / 943 83 27 47

niko
taberna

Karta - Pintxo tradizionalak
Okindegia

Palota Kalea, 5 - 20810 Orio - Egin erreserba 943 53 61 27

KAFETEGI - OKINDEGI - GOZOTEGIA

GELATTO

943 578 176
Herriko emparantza

lzozi naturalak - Opilak

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidiak S.L.



Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidaia eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93 / 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01 - 656 78 29 99

IGLESIAS
SARRAILAGILEAK




Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesiascerra@jeroni@hoo.es
2010 Orio

- ATEAK IREKITZEN DITUGU
- SARRAILA-ZILINDRO ALDAKETAK
- ATEAK IXTEKO MALOKUEN ALDAKETAK
- KOMUNITATEENTZAKO ZERBITZUA

24 ORDUKO ZERBITZUA

TAILER MEKANIKOA AUTO LAN



Pelotari 5, Orio
943 83 00 34

Zure Konfidantzazko
Gertuko Tailerra

Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)



KORTABERRI
arotz lanak

kortaberri.arotza@hotmail.com

665 70 33 47

ANORGA TXIKI S.L
KRISTALDEGIA



- komertzial instalazioak - beira bikoitza
- segurtasun beirak - dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak - barandak - kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Desatascos
LASTER



688 886 536
desatascos@desatascoslaster.com
www.desatascoslaster.com

Hodi-libraketa
Garbiketak presio handiko urarekin
Saneamendu-sareen mantenu prebentiboa
Hodien, isurbideen eta estolderiaren ikuskatzea, kamerarekin
Uholde urak ateratzea
Eskutuko kutxatilen detekzioa

Sagar erreak 21-A • 20590 Soroluz
Abaramendi - bajo 3 • 20810 Orio
Tel.: 943 751 431

24 ORDU

ELEKTRIZITATEA
Ander Expósito

943 831 774
600 856 728

anderexpoelektrizitatea@gmail.com

ITZIAR KIROLAK



Tel. 943 83 31 03

Reebok ALTUJ trang@world
adidas new balance GORE CMO STORE

KALIOA

Arropa
Oinetakoak
Osagarriak

Amortze kalea, 1
T 943 041 885
ORIO (Gipuzkoa)

Zigortze kalea, 10
15. Forastero kalearekin loturik
T 943 021 034
ZARAUZ (Gipuzkoa)

Erribera kalea, 10
T 943 041 033
ZUBIALA (Gipuzkoa)

Foru bidea, 2
T 943 031 075
Aizola (Gipuzkoa)

www.kalioa.es

LUXARBE
Igeltseritza

Igeltseritza orokorra,
denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu
konpromisorik gabe

Lan txukuna
eta merkea

Tfnoak: 943 53 59 00

Fontana
iturgintza





www.fontaneria-fontana.com

- Komun eta sakaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoaren instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujotzila kendu eta dutxa jartzea
- Zoru erradiazalea

Piazza Endala N°1, 20810 - Orio
fontana-ju@hotmail.es
943 539 888 • 661 262 828

ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUAK

zerbitzu teknikoak
€ 24 ordu

emakume arropa - neurri bereziak
kinkiladenda - barruko arropa

argine

15eko dekoetza familia ugarien txartelarekin

Eusko Gudari, 9 - Orio
943 134 889 argine/jantziak

TXUKUN
LORAZANTZA, S.L.



Lorezaintza
Mendiko lanak
Indusketak
Itxiturak

Tel. 660 332 756 • 679 428 851

txukunlorazantza@hotmail.com



Ongi-etorri Oriokora!



Maria Eugenia Atxega

Jende asko etortzen da asteburuetan futbola ikustera. Horrek pixkanaka afizioa sortzen du; gero eta gazte gehiago animatzen dira jokatzera

Orioko Futbol Taldean 1999-2000 denboraldian hasi nintzen bo-luntario lanetan. Egun, futbol zelaiko eguneroko martxa antola-tzen dut, eta elkarteko tabernaren arduraduna ere banaiz.

Askok aldatu da elkartea azken 20 urteetan. Pixkanaka indarra hartzen joan da futbol elkartea herrian, eta oso gustura gaude. Ni hasi nintzenean hondartza inguruan genuen futbol zelaia, eta hiru talde zituen el-karteak. Futbol-zelaiz aldatzea aldaketa handia izan zen, uste dut ordutik el-kartea asko hazi dela. Orain futbol zelaia herrian bertan dago, eta jende asko etortzen da asteburuetan futbola ikustera. Horrek pixkanaka afizioa sortzen du, eta gero eta haur eta gazte gehiago animatzen dira futboleko jokatzera.

Gaur egun, mutilen sei talde eta nesken beste bi ditugu. Horrez gain, fut-bol eskola ere badugu. Askok hasi da elkartea, eta orain lehen ez genituen zailtasunak sortu zaizkigu. Alde batetik, entrenatzaileak bilatu behar izaten ditugu; orain arte gurasoek jarrera ona izan dute eta laguntzeko prest agertu dira, baina elkarlana garrantzitsua izaten da. Bestetik, sarritan entrenamen-du saioak eta partidak antolatzeko arazoak ere izaten ditugu, zelaia bakarra baitugu. Horrez gain, zelaia sofbol taldearekin elkarbanatzen dugu, eta talde guztiak kudeatzea eta denen ordutegiak koordinatzea nahiko lan zaila izaten da. Zailtasunak zailtasun, futboleko jokatzera etorri nahi duten guztiak ongi-etorriak dira elkartean.

Herri txiki bateko futbol elkartea gara, eta gure kirol helburuak horren arabera izan behar dute. Gazte mailan esaterako, argi dugu partida irabaztea ez dela garrantzitsua, eta taldekide guztiek jokatzera izaten da entrenatzailearen helburua. Bestalde, nagusien taldeak Gipuzkoako Pefe-rente mailan jokatzen du; mailaz igo izan gara, baina badakigu oso zaila dela gorengo maila horri eustea. Nagusien mailan ere, herriko gazteei futboleko jokatzera aukera eskaintzea da gure helburua.



Jon Agirresarobe

Hankak lokatzetan

Hasiak omen dira telefono deiak. Zurekin kafe bat hartu nahi dut esaldia entzuten baduzu au-keratua izan zara. Deskafeinatua hartu badaezpada. Ugariak baitatoz parte hartze proposamenak: Udalak gidari berriak behar ditu, Arraun Elkartean ere amaitzera omen doa bigarren legealdia. Sakristauek eta aguazilek jarraituko al dute bere postuan?

Aldaketak egoteko, ordea, zueta-ko batzuk baietz esan behar duzue. Utzi tabernan edo parkean min-gaina dantzatzeari eta hasi lanean. Hankak lokatzetara. Askok galdetu izan didate Udaleko esperientziaz. Gogorra da lanetik atera eta gaueko hamarrak arte etxera iritsi ezina; gogaikarria etxe aurreko arbola gehiegi luzatzen ari delako purrus-tan hasten den herritarra; deserosoa herritarrek begiradaz emandako epaia; mingarria aberastu egingo haiz lagunaren komentarioa. Halere, animatzen zaituztet baietz esatera: bizitzako esperientzia ederreneta-koa izan da niretzat, gizartea uler-tzeko kokapen ariketa ederra. Egin zerbaiten alde.

Nik hiru gomendio sartzen denari. Bat. Ez kanpainarik egin, ez esan besteak baino hobea zarenik. Bi. Ka-leko buruhaustea ez eraman etxera, zutaz arduratzen direnentzat gorde aurpegi onena. Hiru. Lehen bi urtee-tan aurrez egon direnei bota zuen akatsen errua. Esan baietz!



Goikaldean, Laurgain auzoa. Eskubian, liburuaren aurkezpen ekitaldia.



Laurgaingo zaindaria, 'Tragana gogoratu'z'

Joxe Mari Lertxundi (Aia, 1932) Laurgaingo basetxearen zaintzaile izan zen 33 urtean. Orain, aiarrak **urte horietan guztietan** bere **lanean bizi izandako bitxikeriak eta istorioak** jaso ditu liburu batean.



“Aiako herriari eta inguruari dagozkion gogoetak dakartza Lertxundik Auspoak argitaratutako lanean.”

“Gipuzkoako Foru Aldundiak Parke Natural sareak sustatu zituen denboran ere, Laurgain etxean zen lanean.”

TESTUA: AINARA LASA

ARGAZKIAK: INTZA UNANUE / AUSPOA/ UTZITAKOAK

Joxe Mari Lertxundi Zuloaga, Aiako Argin baserrian jaio zen, Arruti-egia bailaran, 1932ko abenduaren 9an; eta jaioterrian darama bizialdia. Bere ustez, izan ere, *non hauxe baino leku hoberik bizitzeko?* adierazi zuen pasa den abenduaren 27an Joxe Mari Iriondo kazetariak, Lertxundiren *Iragana gogoratuz* liburuaren aurkezpenean.

Aurkezpen ekitaldia, familia giroan

Gipuzkoako Foru Aldundiak Auspoa saileko 336. zenbakia argitaratu berri du Joxemari Lertxundiren *Iragana gogoratuz* liburua. Laurgain etxeko zaintzailea urte askoan izandakoa, hango oroitzapenak eta bizipenak jasotzen dira lanean. Joan den abenduaren 27an, bere herriko udaletxean, familia eta lagun artean aurkeztu zen Lertxundiren lan berria.

Joxe Mari Lertxundi, bertsolaria izateaz gain, Gipuzkoako Foru Aldundiko langile izana da; hain zuzen, foru erakundearen Laurgain etxearen zaintzaile izan zen urte askoan, 1965etik 1998ra.

1963ko urtarrilaren 9an ezkondu zen, bere andregai Maria Konzepzion Ibargurenek 27 urte bete zituen egunean. Eta Aiako Galarzelai Txiki etxean bizitzen jarri ziren, Gipuzkoako Foru Aldundiak Laurgaingo basetxearen ardura eman zien arte. *Hiru seme izan genituen Mariak eta neronek. Bigarren haurtxoa jaioberritan hil zitzaien, zoritxarrez, gogora ekarri zuen Lertxundik.*

Aiako herriari eta inguruari dagozkion gogoetak eta istorioak dakartza Joxe Mari Lertxundik *‘Iragana gogoratuz’* liburuan: *Bizitzan zehar nire inguru hurbilean ezaagutu nituen historia eta istorio zahar eta berri interesgarriak jaso ditut, Laurgaingo basetxe maitagarria utzi nuenetik asti gehixeago ere izan dut-eta horrelako lanetarako.*

Joxemari Iriondo izan da edizioaren arduraduna. Aurkezpen ekitaldian *‘Iragana gogoratuz’* argitalpenaren nondik-norakoak azaldu zituen aurkezle eta kazetari azpeitiarrak: *Aiako herriari eta inguruari dagozkion gogoetak eta istorioak dakarzkigu Joxe Marik lan honetan.*

Egileak berak, KARKARari aurkezpenaren ondoren bere Aiako etxean eskainitako elkarrizketan aitortu zionez, *Laurgain etxea nire etxetzat nuen, hura zaintzea izan zen nire betebeharra eta nahia bertan lanean hasi nintzenetik.* Foru Aldundiak Parke Natural sareak sustatu zituen denboran ere, aiarra Laurgain etxean zen lanean. *Hasiera-hasieratik bizi izan nuen Pagoetako Parke Naturalaren sorrera.* Aldaketa nabarikoa izan zela agertu zuen Lertxundik. *Batetik, —zioen— Laurgain etxea, diktadura garaian, aterpe moduko bat izatera heldu zen niretzat eta aiar zein ingurukoentzat. Gero, -gaineratu zuen- demokraziaren etorrerarekin, eta Parke Naturalaren sorrerarekin, bisitariei ireki zitzaion, bere alde on eta txarrekin.*



Joxe Mari Lertxundi, bere etxeko sukaldean. Beste orrian, Laurgaingo ganadu-sariketako aitzinako irudiak, eta liburuaren azala.

Aia eta bertsolaritza

*Idazle eta Laurgaingo zainzaile ez ezik, bat-bateko bertsolari, bertsio-jartzaile eta bertsozale porrokatua ere badela esan behar dugu Lertxundi —goraipatu zuen Iriondok liburuaren aurkezpenean—. Horrelaxe aitortu dio KARKARari protagonistak berak ere: *Etxean bertsozaletu nintzen, gure aitag bertsio zahar asko kantatzen zuen, eta bat-batekoak ere tartekatzen zituen sarri.**

Lagunartean ezaguna bazen ere, 1963an hasi zen bere burua ezagutzera ematen benetako Lertxundi bertsolaria. Izan ere, urte horretan herriko bertsolarientzat txapelketa antolatu zuten Aiako kaskoa eta auzoetako lau apaizek. Egin behar ziren saioak egin, bertsozale askoren gose-egarriak asebate, eta Joxe Mari Lertxundik jantzi zuen herriko bertsolarien lehenengo txapela.

Baina irrikaz zeuden aiarrak berriz ere herriko bertsolarien indarrak eta trebeziak neurtzeko. Eta lehenengo txapelketa hura egin eta handik hogeita hiru urtera, Aia eta auzoetako bertsolarien norgehiagoka antolatu zuen Udaletxeko festa-batzordeak, 1986an.

Herriko eta inguruko bertsolarien txapelketaz gainera, 1989an Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusian, eta 1991n egin zen Gipuzkoako txapelketan ere saiatu zen Lertxundi, eta aurrera samar joan zen.

Hala ere, *bat-bateko lana baino, bertso idatziak, bertso jarriak maiteago* izan dituela kontatzen du Lertxundik. Xenpelar, Bilintx, Txirrita eta garai bateko beste bertsolari zaharrek egin zuten bezalaxe, bertso asko idatzi izan

400

ale. 'Iragana Gogoratuz' liburuaren 400 ale atera dituzte lehenengo edizioan, eta salgai daude Zarauzko Garoa liburudendan eta Donostiako Koldo Mitxelena. Auspoako bazkideek ere eskuragarri dute Lertxundiren azken lana.



du. *Ezagun bezain maiteak izan ditut Basarri, Uztapide, Xalbador, Lasarte eta abarren bertso idatziak. Maisu onak dira horiek zerbait ikasi nahi duen bertso-jartzailearentzat.*

Laurgain: burgesiaren eta kulturaren topagune

Laurgainen bizi izan zituen egun onak eta gaiztoak, garaian-garaiko joera ezberdinetako politikoen zerbitzuan zintzotasun handiz egindako lanak ere gogora ekartzen ditu Lertxundik.

Lardizabal familiaren, Narrosko Markesaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko tratuak Aia aldeko baso-lurrak eta baserriak erosteko, 1956ko urtarrilaren 30ean, on Antonio Zabaleta eta hamabi laguneko bere taldearen aurrean herriko 'Joanena' ostatuan egin nuen nire lehenengo bertso-saio hura, Lambretta moto berrian izan nuen istripu larria, Balduino eta Fabiola errege-erreginen bisitak Laurgainera... makina bat istorio jasotzen ditut liburua honetan.

Gipuzkoako Ahaldun Nagusien eta kargudunen ospakizunak Laurgaingo basetxean, Ardantza familiaren ospakizun batean *erlesemeak eman zizkien estutasunak, EAJren iskanbila eta erdibitzea*, Añabasoko bordaren inaugurazioa eta han botatako bertsoak... Baina batez ere —azpimarratzen du Lertxundik— *euskal kultura munduko makina bat jendeak Laurgainen egindako bilera eta amaigabeko solasaldiak oso gogoan ditu, 'Iragana gogoratzuz'.*

Joxe Mari Lertxundi

Iragana gogoratzuz



AUSPOAKO IDAZLE

Auspoa sailean ezaguna da lehendik ere Joxe Mari Lertxundi. Bere lehenengo liburua, *Baso tarteko oiua* (Auspoa 167), 1983an eman zuen edizio taldeak argitara; 1991n plazaratu zuen *Igaroari begira* (Auspoa 214); 1994an, *Sorlekuaren kezka* (Auspoa 220); eta 1996an, *Beti festara begiak* (Auspoa 236). Aurkeztu berri den *Iragana oroitzuz* liburua Auspoa bildumako 336. lana da; eskuragarri dute, Auspoako bazkideek, eta salgai da Zarauzko Garoa liburudendan zein Donostiako Koldo Mitxelena liburutegian.

Hona liburu berriaren kontrazalean aiarrak Laurgaingo Basetxeari eskaintzen dion bertsoa:

*Basetxe inguruko naturaz
mintzatu nai det zentzunez:
zer gau gozoak ontzen oiua
sortzen zuten oiartzunez!
Udaberrian lilluraturik
zuaizten edertasunez.*

*Txoratzen nintzan kuku eta beste
txorien kankak entzunez.
Utzi orduan konturatu naiz
neuzkan aberastasunez.*



Donostiako Paseo Berrian egon zen oroitarri hau, gerra ostean.

Zarauzko Photomuseumen argazki-erakusketa bat egon zen 2018ko apirilean. Bost argazkilarien lanak egon ziren ikusgai. Haien artean, Jose Ortiz Echagüerenak. Echagüe Orion ibili zen XX.mendearen hasiera aldean. Besteak beste, herriko lau arrantzaleri egin zizkien argazkiak: Eugenio Genova, Bernardo Otegi, Luis Intxauspe eta Lino Solaberrieta.

Gure arbasoen artean ibili zen Echagüe, argazkilaritzaren artea artean berri-berria zen garaian; eta aurreikus-ten jakin zuen orduko bere lanek balio handia hartuko zutela denborarekin. Jakin zuen orduko gizartea erretratatzen, gerorako jasotzen, bere argazki makinaren bidez. XX.mende hasierako gizon-emakumeen janzkera jaso zuen, ohiturak, errituak, lana, jaiak... Horiek denak argazkien bidez gureganaino iritsi dira, denboraren mugak gaindituta.

Zarauzko erakusketako argazkietako bat Bernardo Otegiarena zen, Xanti Zaldua Otegiaren amaren aitarena. Xantik adierazi zigun Echagüe 1936an Orion izan zela, gerra hasi zen urtean. Otegi arrantzalea zen, eta Orioko beste arrantzale askok bezala, 1936ko irailean, Francoren aldeko soldaduak herrian sartu aurretik, ihes egin zuen itsasoz Iparraldera, aitarekin batera. Urdaire kaleko haien etxea hutsik gelditu zen eta, orduan ohitura zen bezala, giltzapetu gabe. Egoera lasaitu zelakoan-edo, Oriora bueltatu zirenean, etxean sartu eta sukaldeko mahai gainean Ortiz Echagüek Otegi egindako erretratua topatu zuten. Alegia, bitarte horretan argazkilaria oriotarren etxean izana zen. Seguru asko ate joka, eta inork zabal-tzen ez zuela-eta, giltzapetu gabeko etxean sartu eta han argazkia utzita alde egingo zuen oster.

Ortiz Echagüe militarra zen, eta Francoren aldekoekin batera ibili zen gerra hartan; baina 1936ko uda bero har-tan Orion gerratik ihesi joandako herritar baten etxean

Itsasotik ihes

Oroimenaren kutxa

izan zen, opari batekin: haren erretratu ederra.

Gerra hark garai hartako denei pasatu zien faktura. 1938ko martxoaren 6an Baleares gerra-ontzia torpedo batek jo eta hondoratu egin zen. Murtziako kostaldean gertatu zen eraso, Cabo de Palosen. Ontzi hartan 765 soldadu hil ziren, tartean Ortiz Echagüeren bi seme na-gusiak. Orioko seme bat ere bai: Ambrosio Uranga Iri-goien. Hondarribia gogorrango astindu zuen torpedoak, erasoan hildakoetako 16 hondarribiarrak ziren; eta 40tik gora, ondarrutarrak.

Donostiako Paseo Berrian, orain Oteizaren eskultura dagoen txokoan, urte askoan oroitarri bat egon zen, Ba-leares gerra-ontzian hildako 34 marinel gipuzkoarrena, gerra ostetik 80ko hamarkada arte. Haien artean ageri dira Mariano eta Jose Ortiz Echagüe, Ambrosio Uranga Irigoienekin batera.

Echagüek garai hartan Donostian pasatzen zuen uda-ko oporraldia. Bere bi semeak hil zituen eraso itsasoan gertatu zenez, geroztik itsasoari izua hartuta, itsasaldetik urrundu eta oporretan Nafarroara joaten hasi zen fami-liarekin, Orreaga aldera.

1961eko martxoaren 4an Orioko barran bizia galdu zuen Ramon Uranga arrantzalearen Maria Garate emaz-teak ere ez zuen bere etxean bizitzen segitu nahi izan, handik itsas adarra ikusten zelako, senarra lapurtu zion itsasoa begi-bistan zuelako. Urangatarren etxeko bal-koiak errio aldera ematen zuen eta handik barra ikusten zen. Alargunak ezin zuen hura eramane, eta hiru seme-alabekin batera, handik herri barruko etxe batera aldatu ziren.

Orioko emazte alargunak, Echagüek bere bi semeen kasuan bezala, ezin aurrez aurre izan etxetik senarra era-man zion itsasoa.



Zarautz

Hileta Zerbitzuak

- > Hilerrien kudeaketa
- > Hileta zerbitzu orokorrak
- > Zerbitzu iraunkorra



Harrespil

Hilerri Zerbitzuak



Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxes: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net

urbide
iturginak s.l.

Iturgintza - Berogintza

Bizkaia Kalea, 4
20800|Zarautz
943 890 069
urbideiturginak@gmail.com
www.urbide.es

azkue



Tf: 943 130 438

azkue

BODEGAS



ZUDUGARAI



Galeria Traditona

Tel. 943 83 03 86
Fax 943 83 94 88
buketizudugarai@euskalnet.net
www.buketizudugarai.com

BPXport

Kirol
AHOLKULARITZA »

Zure esfortzuari etekin
handiena atera

BAZKIDEENTZAT DOHAINIK

AL/AR: 18:30-20:30 · AZ/OS: 8:30-10:30 · O: 15:00-17:00

BPXport

PATXI OLIDEN

Hemengo haragia.
Etxeko produktuak: tripoki, odolki,
txekorria, txorizo, kroketak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

URANGA

burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

PERTSIANAK

AKO MAZ

Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

Seguros Bilbao

Tel: 943 111 600
688 714 869

Santi Barranco
Orioko ordezkaria

Endaia Enparantza, 1
20810 Orre (Gipuzkoa)

e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com



INDO

Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Ubegun industriagunea, 4

Tel. 943 894 024

Fax. 943 130 144

20809 AIA - ORIO



Aldaketak aldaketa, KARKARAK denona izaten jarraituko du

Hasi berri den urte honetan, aurrera pauso garrantzitsua eman-
go du elkarteak 30.urteurrenaren ospakizunarekin batera. **Urola
Kostako hainbat hedabideen artean eratuko den proiektu
garrantzitsu baten parte izango da KARKARA.**

TESTUA ETA ARGAZKIA: INTZA UNANUE

KARKARA elkarteak ezohiko batzarra ospatu zuen hilaren 16an Salatxo Aretoan, laguntzaileei zein herritarrei elkarteak bizi duen egoeraren berri eman eta hainbat gai mahai gainean jartzeko. Sortu zenetik gaur arte biziako aldaketak, egungo egoera, funtzionamendu ekonomikoa eta etorkizunera begira datozen berrikuntzak izan ziren hizpide zuzendaritzaren ahotan.

30 urteko ibilbidea

1989an sortu zen KARKARA borondatezko lanaren fruitu, hasierako urteetan, militantzian. Geroztik, ordea, aldaketa bat edo beste eman zen lan egiteko moduan. Guztiz borondatezkoa izan beharrean, sari baten truke bat edo bi langile jarduten ziren elkarteak, gizarte segurantzarik gabe. Urte horietan guztietan, herriko jende askoren harrobi izan da KARKARA. Baina aldi berean, langile aldaketa ugari izan da.

Azkenaldian, pauso garrantzitsuak eman dira. Apustu estrategiko berri bati ekin zitzaion: webgunea indartzea. Horretarako webgunearen kudeaketarako plataforma digital berria behar zen, inbertsio handia eskatu zuena, 10.000€-tik gora. Orioko Udalarekin ere hitzarmen berria lortu zen, proiektua egonkortzeko beharrezkoa. Eta lan talde berria eratu zen: bi kazetari jardunaldi osoz, webgunerako eduki propioak eta ikus-entzunezkoak sortzea helburu. Publizitatea eta administrazioa eramango zuen langile bat kontratatu zen, lanaldi erdian.

Kazetaritza aldetik, gauzak txukun antzea egiten direla dio Rikardo Uzkudunek, elkarteko lehendakariak, pape-rekoak harrera ona izaten jarraitzen du eta webguneko bisitek ere goraka egin dute azkenaldian: *Kalitateari eus-teak esfortzu handia eskatzen du, eta aldaketetan pilatu-tako jakintza hori galtzen joaten da.*

Hala ere, dena ez da positiboa izan, bidean, zerbitzu berriak, harpidetza kanpainak eta bestelakoak (ikus-entzunezkoak esate baterako) egitera ezin iritsi ikusi baita elkarteak.

Egoera ekonomikoa

Elkartearen diru iturriak hiru dira: Publizitatea, diru-laguntzak eta banakako laguntzaileak. Jon Agirresarobe Zuzendaritzako kideak, orokorrean egoera ekonomikoa egonkorra dela argitu du: *Alde batetik, publizitate sarrerak onak ari dira izaten. Diru laguntzei dagokienez, ordea, aurten, Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiak modu bateratuan emango dituzte diru laguntzak, 2019 amaieran. Administrazio publikoen menpekotasun handia du elkarteak. Dena dela, elkartearen egoera ekonomikoa biziraupeneko baina egonkorra da; biziraupenean egonkortzea ona ez dela dakigun arren.*

Etorkizuneko urratsak

Aurrera begira ere aldaketekin jarraituko dute. Urola Kostako hainbat komunikabide batuko dituen proiektuan buru belarri baitabil elkarteak. Baleike (Zumaia), Ma-



KARKARA elkartearen ezohiko batzarra.

xixatzen (Azkoitia), Uztarria (Azpeitia), Erlo Telebista eta Urola Kostako Hitzarekin batera komunikazio talde bat eratuko da. Irabazi asmorik gabeko kooperatiba bat sortuko dute. Erakunde sortzaileek izango dute gehien-goia, jabetza berdinetan zatituta, KARKARAK %10a izango du, langileak bazkide egingo dira eta bazkide kolaboratzaileak ere onartuko dira.

Proiektu honi esker, eskaintza hobetu eta osatzea lortuko da. Finantziazioan ere iturri berriak lantzeko balioko du, komunikazio zerbitzuak eskainiz, eta arlo guztietako lan taldea profesionalizatzea bideratuko da. Onintza Aiestaran, zuzendaritzako kidearen ustez, baliabideen kudeaketa eraginkorragoa egitea lortuko da: *Teknologia berrieekin batera, kontsumo ohiturak ere aldatu egin dira. Digitalizazioa erronka handia da gaur egun komunikabideentzat. Gure herri komunikabideak ondo errotuta daude gizartean, baina egitura ahulak dituzte eta baliabide eskasak etengabeko berrikuntzari aurre egiteko. Euskarazko hedabideen sektorea antolatu egin da azken urteotan, eta beharrezkotzat jo dugu, baita erakunde publikoetatik, eskualdeka egiturak sendotzea, elkarrekin aurrera egin ahal izateko.*

KARKARAK, ordea, berdina izaten jarraituko du: *Paperekoan eta webgunean lanean jarraituko dugu. Herri-tarren kolaborazioak ere funtsezkoa izaten jarraituko du. Aiar eta oriotarrek ateak irekita izango dituzte erredakzioan, orain arte bezala, eta kolaboratzaile sarea handitzen goaz Aian eta Orion, gure nortasuna indartzen, KAR-*

KARA herritik sortu baitzen eta hala jarraituko baitu.

30. urteurrena

Aurten KARKARAK 30 urte beteko ditu sortu zenetik. Horregatik, elkartearen ezohiko batzarrean mahai gainean jarri zen urteurrenaren gaia.


Webgune berria estreinatu du orain gutxi Aiako eta Orioko orainkariak eta urte honetara begira, lokala berritzeko ideia darabilte buruan. Halaber, paperekoari ere diseinu berria eman nahi zaio, aldizkari moderno eta bisualagoa egite aldera.

Elkarteak datorren ekainean beteko dituen 30 urteak ospatzeko ere KARKARAtik ideiak eta ekimenak bultzatzeko lanean dihardute. Hainbat ekimen gauzatu dituzte jada ikasturte honetan, hala nola Asier Gozategiren elkarriketa musikatua edota pasa den urrian egindako Oteitza astea.

Horri guztiari helduta, Elizabete Manterola zuzendaritzako kideak, batzorde bat osatzeko asmoa plazaratu zuen ezohiko batzarrean; aiarrak eta oriotarrak urteureneko batzorde berezi horren parte izateko eskaera luzatu zuen: *Herri-tarren ideiak entzuteko prest gaude.*

Inork iradokizunik edo ideiarik izanez gero, deitu dezala elkartearen telefono zenbakira (943 83 15 27) edo idatzi karkara@karkara.com e-postara. Whatsapp bitartez ere jaso daitezke ekarpenak, 688 85 73 05 zenbakira idatziz.

ARGAZKI ERREPORTAJEA





Gabon hauetan famili giroa nagusi

Gabon jendetsuak izan dira aurtengoak: bai Aian eta baita Orion ere. Mari Domingi, Olentzero, Mari, Basajaun... denen bisita jaso dugu! Hiru erregeak ere gure artean izan dira opariak banatzera bidean. Haien gutunak jaso dizkiguten erregeen karteak ere artean izan ditugu.

Egun polit ugari ekarri ditu neguak, umeak kalean ilusioz beterik, gurasoak haiei begira, aiton-amonak, nerabeak... adin guztietako jendea, elkarrekin, familia giro nagusi.

“Agian ez dut jakin oposizioarekin harreman egokia izaten”

Jose Angel Zaldua

Orioko Alkatea

Jose Angel Zaldua (Orio, 1959) 2006.urtean egin zen EAJ-PNVko alderdikide. **Zuzenbi-dean lizentziatua**, Gipuzkoako Federazioen Elkartean urte askoan lan egin du Orioko alkateak. 2015ean hasi eta amaitzear den **legealdiaren errepasoa** egin du KARKARarentzat.

TESTUA: KARKARA / ARGAZKIAK: INTZA UNANUE

Zure burua aurkeztu al zenuen berriz hautagai izateko? Jarraitu nahi al zenuen alkatetzan?

Bai, aurkezteko asmoa nuen. Uda aurretik, ikusi nuen beharrezkoa nuela beste legealdi bat lau urte hauetan martxan jarri ditugun proiektuei amaiera emateko. Baina asmoak asmo, familiarekin kontrastatu behar nuen erabakia. Familia ez zen ados agertu, ez baitzidaten apenas etxean ikusten.

Alderdiarekin hitz egin nuen; lehendabizi esan nien nire asmoa jarraitzea zela baina, senitartekoekin hitz egin ondoren, iritziz aldatu nuen. Alderdiari ez nion beste izenik eman, baina emaztea eta biok komentatu genuen, nire ondoren, alkategai onena Lourdes Salsamendi izango litzatekeela. Ondoren, Orioko batzarrak ere izen bera eman zuen, eta poza eman zidan hartu zuten erabakiak.

Zer nabarmenduko zenuke Udaleko azken legealdiaz?

Hasi ginenean, proiektu falta zegoen. Beraz, lehenik,

zintzilik utzitako horiek bukatu behar genituen. Batzuk *marroia* deitzen zioten horri soluzioa ematen saiatu ginen, eta eman zaie. Behin horiei irtenbidea emanda, proiektu asko martxan jarri ditugu herrian. Hurrengo legealdia polita izango da, proiektu asko martxan utzi ditugulako.

Nola baloratuko zenuke EAJtik egin duzuen lana?

Oposizioak alderantzizkoa esan arren, lan bikaina egin dugula usten dut. Ikusi behar da nondik hasi ginen, eta noraino iritsi garen. Gauza gehiago dago egiteko, baina egin ditugunak nahiko indarrekoak eta ondo egindakoak izan direla iruditzen zait.

PSE-EEren botoarekin egin zinen alkate, baina agintaldian zehar, Ana Priede sozialistak askotan egin du bat EH Bildurekin eta Orainekin, zuri eta Udal Gobernuari, lan falta leporatuz.

Oposizioak hori esan behar du. Datu batzuk ipintzen ditut mahai gainean; Bulego Teknikoan jasotako datuen



arabera, aurreko legealdian 26 Hirigintza Batzorde egin ziren; oraingoan 33 egin ditugu dagoeneko, eta legealdia ez da amaitu. Obrak eta Zerbitzuetako Batzordeari dagokionez, aurreko legealdian 28 egin ziren hiru urtetan eta gurean, oraingoan, 26. Horregatik esaten dizut, gauza bat esatea dela, baina zein datu eta fundamenteekin esaten da?

Zehazki, aurrekontuetan onartutako inbertsioak behar beste ez gauzatu izana leporatu izan dizuete. 2016 eta 2017 urteetan inbertsioek %57-58ko exekuzioa izan zuten.

Ez da baxua, horrek du tranpa. Urte berria hastean, lehenik aurrekontu bat onartu behar da, eta hori normalean martxoan izan ohi da. Aurrekontuetan partida desberdinak jasotzen dira, horietako bat, inbertsioena.

Inbertsio horiek ezin dira exekutatzeko hasi aurrekontuak onartu arte; beraz, jadanik apirilean jartzen gara. Udako oporrak tarteko, abenduaren 31 arte denbora segituan pasatzen da. Exekuzioa urte horretan %58koa da, martxoan exekutatzeko hasten garela. Ordez, aurrekontuak martxoan onartuta, hurrengo urteko martxora arte kuantifikatzen badugu, inbertsio partidan zehazten denaren %95era egitera iritsi izan gara gehienetan.

Herriarrentzat eskuragarri daude datu horiek?

Bai. Urte batean exekutatu diren partidak eztabaidatzen

dira hurrengo ekaineko udalbatzarrean. Beraz, herritarrek webgunean kontsultatu ditzakete ekainero egiten diren plenoetako aktak.

Zorrik ba al du Udalak?

Ez. Orioko Udala gaur egun zorrik ez duen gutxienetakoa da. Egia bada ere aurreko legealdian altxortegia murriztu zutela, oraingoan ez dago zorrik, eta altxortegia handitu egin dugu. Altxortegia da erabilgarria dagoen dirua eta epe laburrera ditugun aktibo finantzarioak. Diruzaintza on bat izateak kudeaketa ona eskatzen dugu, eta guk horretan lan txukuna egin dugu.

Udalean sartu eta berehala, soldata igo zenion zure buruari; gero, oposizioko alderdiek jaitsi egin zizuten. Zer iritzi duzu honen inguruan?

Nik ez nion igo nire buruari soldata. Legealdia hasita, ekainean ez nuen ezer kobratu. Soldata 2015eko uztailan ezarri zitzaidan, batzordeak, zinegotziak eta bestelako izendapenak egiten diren unean. Eta orduetik ez dut ukitu.

Eta zergatik esaten da hori? Aurreko alkatearen soldata berdina duzu?

Ez, 300 bat euro gehiago kobratzen nituen. Legearen gomendioa da Udalean dauden funtzionarioen artean gehiengoak kobratzen duenak adina kobratzea. Idazka-



Alkatea autokarabanen aparkamenduaren inguruko azalpenak ematen. Beste orrian, elkarrizketaren une bat.

riak irabazten du gehien, beraz, gomendioa da idazkaria-
ren berdina kobratzea. Ni alkate izendatu nindutenean,
Gipuzkoako Foru Aldundiak dekretu foral bat atera
zuen, esanaz udal bakoitzeko biztanle kopuruaren ara-
bera alkateak zenbat kobratu behar zuen. Niri jarri zida-
ten bertan ezarritakoa, ez euro bat gehiago, ez gutxiago.

Oposizioak onartu egin zuen soldata hori. Ondoren,
jaisteko erabakia hartu zuten, niri eta beste bi zinegotzi-
ri.

Ez dut ulertzen soldata jaistearen arrazoia.

Izan daiteke zigorra, beraiek zazpi zinegotzi eta gu sei
garelako. Hasieran onartutako soldata jaitsi zidaten, bai-
ta beste bi zinegotziri ere. Agian gorrotoa hitz potoloegia
da, baina, nire ustez zigor modura egin zuten. Erregutu
ere egin nien, nire soldata jaistea berdin zitzaidala, baina
nire zinegotziei, mesedez, ez jaisteko.

Zenbatekoa da zure hilabeteko soldata?

Nire soldata orain 2.600 bat eurokoa da, garbia. Ni
hemen ez nintzen diruagatik sartu, lehen baino gutxiago
irabazten baitut. Orain, aurreko alkateak baino gutxiago
kobratzen dut.

Zertan da EAJk azken kanpainan agindu zuen Arozena inguruko zentroa? Adinekoentzat eta gaixotasun paliati- boentzat aurreikusten zenutena?

Proiektu horri buruz Arozenako nagusiekin hitz egin
zen, eta eurak Udalari lur horiek uzteko ados agertu
ziren eremu hori proiektu horretara bideratzeko, lurrak
Udalari dohainik utziz. Baina Orioko Udala Gipuzkoako

“Nik ez nuen nire soldata
igo. Gipuzkoako Foru
Aldundiak ezarritako
kopurua jaitsi egin zidan
oposizioak.”



Foru Aldundiarekin negoziatzotan hastean, Aldundiak atzera bota zuen, ez zuelako bideragarria ikusten.

Gertaera hori herritarrei komunikatu zitzaion?

Herritarrei ez dakit, oposizioari bai.

Arraunetxeko mantenuan 80.000 euro inguru urtero, eta kirol teknikari bat jornada osoan. Ez al da gastu gehiegi ematen zaion erabilerarako?

Udal teknikari hori funtzionarioa da. Bere plaza atera zuenean, ez nengoen ni. Niri zer iruditu edo beste bati, berdin dio, ezin dizkiogu langile bati bere eskubideak kendu. Gainera, kontutan eduki behar da, Arraunetxea ez ezik, kiroldegia, futbol eta sofbol zelaia eta pilotalekua ere ditugula Orion. Halaber, gaztediako teknikaria da. Usten dut herrian lan ona egin duela eta egiten ari dela.

Eta Arraunetxeko mantenurako 80.000 euroko urteroko gastua, ez al da gehiegitxo?

Egon gara Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan, kostu horren zati bat bere gain hartu dezan. Baina Arraunetxeak, bere osotasunean teknifikazio zentro bat izatera heltzeko hainbat baldintza bete behar ditu, hala nola, lotarako eremu bat izan behar du. Eta, Arraunetxea, egunez funtzionatzen duen guzti bat da. Hori eta beste arrazoi batzuk tarteko, Jaurlaritzak ez digu diruz lagundu.

Dena den, piraguismoko federazioak, surfeakoak, eta turismo aktiborako enpresek beren kuota ordaintzen dute Arraunetxea erabiltzeagatik.

HIRIGINTZA

Herriko Plazan obra handia egingo da. Beharrezkoa al da

herriarentzat?

Obra honen inportanteena ez da ikusten dena baizik lurrean azpitik doana. Orioko erdigunea degradatuta dago, ur fekalak eta euri-urak, denak, batera doaz, eta banaketa egin beharra dago. Alkate bati ez zaio gustatzen herrigune guztia altxa eta obra hori egitea: batzuek nahiago dute auditorio bat egitea, Arraunetxe bat... Egin beharra zegoela erabaki genuen. 2016an hasi ginen gai honekin.

Obra hau asko atzeratu izanaren errua Udal Gobernuarena izan dela dio oposizioak.

Oposizioak beti izan du obra honen egoeraren berri. Bi lan eskatzen ditu Herriko Plazako proiektuak: lur guztia altxatzea ur fekalak eta euri-urak banantzeko eta plaza oinezkoentzat egitea —Errustatik hasi eta Bordatxo atzealdera arte—. Azpiko hodien obra behin eginda, tapatu eta nola jarri pentsatu behar da.

Arazoa izan da obrak egiteko plazako eremu guztia itxi behar zela, eta herritar asko kexu ziren; guztia itxiz gero, herrira sartu eta irten Txankatik egin behako litzatekeela.

Zein da orduan irtenbidea?

Errustatik Bordatxorako bidea oinezkoentzat egin bitartean, moila ertzean oinezkoentzat eremu bat egin eta errepidea bi noranzkotan banatu nahi genuen.

Kontua da Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura sailak zera dioela: moilako oinezko eremu hori jarriz gero, itsasontziek ainguratzeko lekua

galtzen dutela. Usten genuen bi metroko oinezko eremu bat nahikoa izango zela, baina kasua aztertu dute eta zazpi metroko zabalerako bidea egin behar da. Beraz, ez da bideragarria oinezkoentzat eta autoentzat, bientzat, gune bat egitea moilan; plazaren beste aldean oinezkoentzako lanak egin bitartean.

Dagoeneko Eusko Jaurlaritzak onartu du herriko moilaren berriztatze proiektua. Pliegoak onartu eta obrak maiatzean hastea aurreikusten da, ezustekorik ez bada, eta sei hilabeteko obra izango da. Plazako obrak, berriz, hamar hilabeteko iraupena izango du. Bitarte horretan, plaza guztia itxiko da autoentzat, bai moila ingurua baita. Aritzaga eta Herriko Plaza kaleak ere (Errustatik Bordaxora).

Zenbat fase ditu beraz proiektuak? Plaza guztia itxiko da?

Esan bezala, proiektu honek bi zati ditu: bat moilakoa, eta bestea, Errusta eta Bordatxo arteko peatonalizazioa. Azken honetarako EAjk 280.000 euroko diru-laguntza lortu zuen, baina laguntza hori ez galtzeko, 2018ko abenduaren 31 aurretik oinezkatzeak amaituta egon behar zuen. Hau da, Orioko EAjk oposizioari proposatu zion moilako obra hasi bitartean, saneamendua eta peatonalizazioari ekitea, baina nahiago izan zuten laguntza hori galdu proiektuari argi berdea eman baino.

2018ko abenduak 31erako obrak bukatuta egon behar zuen diru-laguntza ez galtzeko eta hasi egin behar genuen. Ez dago egina oposizioa kontratan atera zelako. 2017an esan genuenean onartu balute, jada egina egongo litzateke.

(...)

Gai hau estrategia bezala erabili dute hauteskundeei begira. Herritarren interesen gainetik berenak ipini dituzte. Orain zer gertatzen da? Maiatzean bi obrek bat egingo dutela, eta sarrera zein irteera txankatik egin beharko dela.

Dikerako, Kofradiarako eta Kosta tailer ingururako plana aurkeztu zuen oposizioak 2017ko azaroan Garate familia eta Kofradiko presidentearekin batera. EAJ falta zen aurkezpenean. Nolatan ez zuen Udal Gobernuak horren lidergoa eraman?

Oso erraza da, ez ginen egon plan hori ezinezkoa zelako. 33.400 metro koadroko proiektu bat, Dikeko eremuan, ez zen sartzen. Nola eramango dugu egin ezin den zer-baiten lidergoa?

Orain egitasmo hori onartu da, metro koadroak asko murriztuta.

Zein jarrera du oposizioak Udal Gobernuak proiektuak aurkeztu dituenean? Negoziazioak errazten dituzte?

Negoiazioak ez dira errazak izan. Zaila izan da oso legealdia aurrera eramatea. Beti gogorarazi didate ez dudala gehiengo osoa.

Askotan EAJri kalte egitera joan dira eta esaten diet hori. Hasieran esaten nien, ari zarete *aurreko alkateari ostikoz jotzen nire ipurdian*, hau da, aurreko alkateak egindakoak niri leporatu izan dizkidate. Proiektu bakoitzaren onurak ikusi beharrean, edo herriaren intereserako izan zitekeen ala ez baloratu ordeztu, EAJ proiektu horrekin irabazten ala galtzen ateratzen zen izan dute irizpidetzat.

PSOEk alokairu sozialerako etxebizitzak egiteko proposamena aurkeztu zuen Udalbatzarrean, eta onartu egin zen; zuek, zergatik ez? Nola dago gaia gaur egun?

Ez genuen onartu, ez genuelako nahi Muntoko Udalaren partzelan soilik alokairu sozialerako etxebizitzak eraikitzea. Ghetto batean bihurtuko litzateke eremu hori, gizarte-bazterketan dauden kanpotarrak etorriko lirateke eta.

Sozialak ez ezik, Babes Ofizialekoak, tasatuak eta bestelako etxebizitzak ere egin beharko lirateke gure ustez, herritarrei lehentasuna emateko; horregatik eman genuen ezezkoa. Eusko Jaurlaritzarekin bilera bat egin genuen eta beraiek ere bat zetozen gure asmoarekin, hau da, etxebizitza mota desberdinak eraikitzeke planteamenduarekin.

Eta Anibarko Portuko etxebizitzaren proiektua zertan da?

Bideratuta dago baina hitzarmena oraindik ez dago sinatuta. Eremu bat Garmendipe elkarteari utziko zaio, gainontzekoak gazteen emantzipazioa ahalbidetzeko etxeak izango dira.

Zenbat etxebizitza egingo dira orduan gazteentzat eta zenbat denboraz utziko zaizkie etxebizitza horiek?

Bost edo sei etxe joango dira bertan, eta gehienez bost urtez ahaliko dute etxe horietan bizi. Eusko Jaurlaritzak markatzen du epea.

Noiz hasiko dira etxe horiek eraikitzen?

Lehen esan bezala, hitzarmena sinatzea falta da; behin akordioa itxita, berehala hasiko dira. Sei hilabete barru izatea aurreikusten dugu, gutxi gorabehera.

“Negoziazioak ez dira errazak izan. Zaila izan da oso legealdi aurrera eramatea.”

“Datozen hamar urteetan, Orion 420 bat etxebizitza eraikitzea aurreikustean da.”

Datozen hamar urteetan, Orion zenbat etxebizitza berri egitea aurreikusten da? Non?

420 bat etxebizitza: 270 Dike eremuan, Abaromendin 36 inguru (libreak), eta besteak frontoi inguruan, Gozategi Frutadenda atzean dagoen orube edo solarrean, Aroste-gineko horretan, Leundanean, Mutiozabalen, Azkueren fabrian, eta beste zenbait eremutan, oraindik zehaztu gabe daudenak.

TURISMOA ETA MERKATARITZA

Uda aurretik azterketak egin ziren kanpineko zuzendari eta turismo teknikari postuetarako; hautagai batek ere ez zuen gainditu proba; EH Bilduko Emeterio Iribarrek KARKARi emandako elkarrizketan esan zuen ‘hautaketa prozesuan akatsak egin ziren, eta horiek, agerian utzi zuten Udal Gobernuaren eraginkortasun eza’.

Inork froga ez aprobatzea ez da Udal Gobernuaren errua. Azterketa hori Eusko Jaurlaritzako IVApek prestatu zuen. Udal Gobernuan ezin du prozesuan egon, ez eta tribunalean. Hautaketa Prozesua kanpora atera genuen nahita. Prozesuan sartzeko baldintzak aho batez onartu genituen alderdi guztiok.

Zertan dira bi hautaketa prozesu horiek?

Hasi dira, idazkaria bajaran egon da, eta orain eguneraketa lanetan dabil. Dena dela, esan behar dut postu publiko gehiago sortuko ditugula Udaleko sail desberdinetan, Gizarte Zerbitzuetan esaterako. Lehiaketa Publiko gehiago egingo dira, beraz.

EAJ-PNVrentzat, zein garrantzia du turismoak?

Orio kostako herria da: ibaia du, portua, hondartza... Turismo estrategia bat egiteko moduan gaude. Hala ere zaila da oreka aurkitzea, ez dugu nahi herritarrak inbadi-tuta sentitzea.

Bueno, baina Urola Kostako herri guztiek dute Turismoko Plan Estrategikoa, eta tokikoa bermatzen da horietan.

Oriok, ordea, ez du planik. Zergatik?

Aztertu dugu hori. Besteak beste plan hori egiteko kontratatu nahi dugu Turismo teknikari bat. Dena den, plan estrategiko bat egitearekin ez da nahikoa.

Turismo teknikaria garrantzitsua izango da, beste herrietako turismo arduradunekin ekintza bateratuak egiteko adibidez. Baina herriko komertzioek eta ostalariek ere inplikatu egin behar dute.

Zergatik diozu hori?

Pilak jarri behar dituzte. Nik diskoteka eduki nuenean jende mordoxxa ibiltzen zen, eta Udalak ez zuen ezer egiten; guk ekartzen genuen jendea. Orain ematen du taberna edo denda ireki eta mostradore atzean Udalak jarri behar duela. Batzuk zain daude Udalak zer egingo.

Arkupe elkarteak bisitariei zer bait eskaini behar die. Ondo dago aparkaleku beharra eta herriko bidea autoei irekita uztea eskatzea, baina eskaintzen duten zerbitzua hobetu behar dutela usten dut. Aparkalekua behar dugu, bidea irekita... konforme, baina zer bait gehiago ere bai jendea ekartzeko. Zentzu horretan autokritika egin beharko lukete.

Hautagai zinenean esan zenuen Orio hilda zegoela, ez zela herri dinamikoa.

Eta berdin jarraitzen du. Udalak ahaleginak egiten ditu, baina ikusten da ez zela nahikoa. Arkupek ekitaldi



“Turismo teknikaria nahitaezkoa da, baina herriko dendarien eta tabernarien inplikazioa ere beharrezkoa da.”

askotan hartzen du parte eta eskertzekoa da, borondate ona erakusten dute. Guk urtero elkarte horri baliabideak jartzen dizkiogu herria dinamizatzeko, baina ikusten da ez dela nahikoa.

Gaueko hamar t'erdietan ez etorri Oriora afaltzera, inon ez dizute eta ezer aterako. Gure garian gaueko hamabietan tabernara joanda ere, ez zinen jan gabe irteten, edozer prestatzen zizuten momentuan.

Done Jakue Interpretazio Zentroak benetan funtzionatzen al du? Hala bada, ez al litzateke zerbait desberdina egin behar Iturriaga eraikin horrekin? Etortzen diren erromesentzat ba al da ostataleku nahiko herrian?

Zentroak funtzionatzen du, erromesek Done Jakueko esku-orrian aurkitzen gaituzte, eta bertara joaten dira.

Iturriagako eraikinerako ideiak baditugu, baino ez dago ezer zehaztuta oraindik.

Eta erromesak Orion lo egitera geratzeko, zein neurri hartu dituzue?

Kanpinean eremu bat prestatu dugu erromesek bertan gaua pasa dezaten.

Baina horrekin ez da nahikoa, etortzen den erromes kopuruari erreparatuz gero.

Hori ez dagokio Udalari bakarrik. Eskaintza gehiago egongo balitz, noski alojamendu horiek beteko liratekeela. Baina iniziatiba pribatua falta da. Beste lekuetan negozio pribatuek irekitzen dituzte alojamendu turistikoak, ez Udalak.

Autokarabanen aparkamenduarekin iskanbila handia sortu zen iaz Abaromendin, bizilagunekin egindako bileran. Orain, Udalak hara bideratu ditu autokarabanak, parkin egokitua egin ez arren. Nola dago gaia?

Autobidearen azpian jarri dute baina lehen berez Abaromendi atzealdean zen. Batzordean gure alderdiak bi eremu jarri zituen. Istilua egon zen bizilagunekin. Guk esan genuen hor edo Ortzaikan izan behar zuela. Baina Ortzaikan ere ez zuten nahi. Eusko Jaurlaritzako Por-

tuetako zuzendaritzaren eremua da hori, ordea; beraz, ezezkoa eman ziguten.

Azkenean onartu genuen autobide azpian egitea, Eme-terio Iribar kexatu egin zen, gertatutakoa azaldu zitzaion eta azkenean aho batez onartu da autopista behean egitea.

Tontortxikiko Tumuluak herritar askok ez dituzte ezagutzen, eta zonaldeko baliabide turistiko garrantzitsu bat da. Zergatik ez dira ezagutzero eman?

Agian ez da nahikoa egin, baina ez gara herri bakarra horrelako altxorra duena. Hau ezagutzen duen gehiengoa kanpotarra da. Herritar askok ez daki ezta non dauden.

Udalak ez du ordea promoziorik egin.

Udalak azken bi urtetan diru asko inbertitu du zona hori txukuntzen, eta interpretazio panelak jartzen. Askotan kanpoko lekuak askoz gehiago ezagutzen dira. Tibeteko monasterioa ezagutzen dugu, baina Aiako *labaderoa* ez.

EUSKARA

**Euskaraldia. Zein balorazio egiten du EAJK? Eta zuk zero-
rrek? Zein rol hartu zenuen?**

Ni ahobizi izan naiz. Euskaraldia hasi zenean Diputazioan elkartu ginen herrietako euskarako arduradunekin; Jabier Zabaleta euskara teknikariarekin joan nintzen. Hamaika pertsonako taldeak egin behar zirela esan zuten, eta Oriok erabaki zuen hamalaukoa egitea, trainerua bezala. Bilera hartan garrantzi handia ematen zieten belarriprest rolari.

Euskaraldiarekin Udalean eta kalean euskararen erabilera areagotu da?

Parte hartu dugunon artean bai, noski; baina, Euskaraldia bukatu denean uste dut berriz lehengora bueltatu garela.

Udalean euskaraz hitz egiten da guztiz? Entzuten al da pasiloetan gaztelerarik?

“Nire ondoren, Lourdes Salsamendi iruditzen zait izan genezakeen hautagai onena. Onena opa diot.”



Erabat. Akaso gaztelerazko hitz gehien erabiltzen dituen, ni naiz, euskaldun zaharra naiz eta zenbait hitz eskapu egiten zaizkit. Hala ere, lau urte hauetan euskara tekniko menderatzen ikasi dut. Lagungarria izan zait Udaleko lana.

DATOZEN HAUTESKUNDEEI BEGIRA

Lourdes Salsamendi izango da EAJ-PNVren hautagaia datozen hauteskundeetan. Nola ikusten duzu?

Hasieran esan bezala, iruditzen zait hautagai ona dela. Oso ona izango da, desira diot hauteskundeetan emaitza onak ateratzea, berak gobernatu eta duen guztia erakusteko.

Nik nire burua ikusten dut onena, baina nire ondoren, bera da nire ustez hautagai onena.

Datozen lau urteetan, Orioko EAJn jarraitzeko asmoa duzu? Edo politika uztekotan zara?

EAJko afiliatua izaten jarraituko dut, baina ez naiz aktiboki politikan jardungo; atsedena behar dut.

BALANTZE PERTSONALA

Orain dela lau urteko Jose Angel eta gaur egungoa, berdina al dira?

Lau urte alperrik ez dira pasatzen. Alabak esan zidan ez naizela lehengoa. Ni umore oneko gizona naiz, arpa jotzailea. Baina berak azkenean oso serio ikusten ninduen, gehiegi. Andreak, semeak eta alabak esan zidaten nahiago dutela lehengo aita...

Dena den, lau urte hauetan alkate izateak gauza onak ere ekarri dizkit. Alkate izan ez banintz ez nuen ezagutu dudana jende asko ezagutzeko aukera izango.

Zertan asmatu duzu?

Asmatu, kudeaketan. Orioko herriarentzat lan eta proiektu egokiak aukeratzen jakin izan dut.

Eta huts egin?

Jendeak esaten dit erraztasuna daukadala harremanak

egiteko. Udalean oposizioarekin ez dut hori lortu, eta autokritika moduan diot. Bidea aurkitu behar nuen berekin harremana sustatzeko, kudeatzeko. Ez dakit bere ere baduten bere partea baina... nik behintzat ez dut asmatu.

Orioko EAJk ba al du erreleboa emateko gazte jenderik?

Beti EAJri leporatu zaio jende helduegia duela bere lerroetan. Udaleko zinegotzi zaharrena EH Bildukoa da, gazteena, gure alderdikoa.

Gaztea politikatik aldenduta dago, alderdi guztietatik. Gazteak gauzak erraz izan ditu. Orain jubilatutak kalera ateratzen dira borrokatzera, eta gazterik ez dago manifestazio horietan, gehienak sofan eserita daude eta.

Bukatzeko, zerbait gehitu nahi duzu?

Gustatuko litzaidake orain galdera asko oposizioaren inguruan izan diren bezala, beraiei elkarrizketa egin zitzaienean EAJtz galdetzea. Eta guri ere aurretik proposatzea euren elkarrizketetan zer galdetuko geniekeen.

KARKARAK ez ditu beste alderdien galderak elkarrizketetan erantzen. Guk planteatzen ditugu galderak, ez beste inork.

Elkarrizketa honetan galdera asko PSOEkoen eta EH Bilduren inguruan izan dira, eta KARKARAK haiek elkarrizketatu dituenen, ez da ia gure aipamenik egin galderatan.

Alkateari, oposizioak esandakoaren inguruan galdetzea zentzuzkoa dela iruditzen zaigu, beren lana kontrol ariketa egitea da, eta gurea, kazetariona, legealdian izandako gertaeren inguruan galdetzea eta herritarrei gertaera horien berri ematea.

Kazetarion lana errespetatzen dut, noski, baina beste alderdiei egindako elkarrizketetan EAJri buruzko galderak faltan bota ditut.

Goazen Orioko eta Aiako errezeta liburua idaztera. Lagunarteko otorduak; paper muturrean gordetako osagaiak eta kopuruak; etxeko jan ohiturak; baratza, errioa eta itsasoa; jatetxeetako sukaldeak... Mahai bueltan gauza asko egin daitezke, interesgarrienak bi: jan eta berriketan egin. Ahal dela ez egin biak batera.

"Bi astebururako joan eta sei hilabete egin nituen Xixarion"

Unai Campo Pintor

Neguko barazkiak parrilan urdaiazpiko saldarekin



Osagaiak

Orburu edo alkatxofak
Brokolia
Azalorea edo koliflora
Kardoa
Borrajia
Bruselaza
Romanescu azalorea
Oliba olioia
Gatz larria

Salda egiteko:

Urdaiazpiko hezurak
Porrua
Tipula
Azenarioa
Apioa
Baratxuria
Perrexila
Ura

Nola egin?

Ohiko moduan egingo dugu salda: ur hotzean jarriko ditugu osagai guztiak, eta bi ordu edukiko ditugu sutan.

Parrilangeneroa etasua renartekodistantzia zaindu behar dugu, hogeizentimetrora kokatzen dituzte Porruen.

Denbora gehien behar duten barazkiekin hasiko gara: hamabi bat minutu behar dituzte orburuek eta karduak, azken bost minututan gehituko ditugu beste barazki guztiak.

Berdurak parrilatik atera, platearean kokatu eta ondo gozatzea besterik ez da geratzen: oliba olioia eta gatz larria erabiliko dugu. Mahaikideen aurrean gehituko diogu urdaiazpiko salda.

Gomendatutako edaria

Katxiña Txakoliña

JON AGIRRESABORE

La Salbe zubitik behera Rekalde zumarkaleko laugarren zenbakian egin dugu zita, Bilbon. Bertan dago Porrua jatetxea, Unai Campo santutxuarrarena. Ezaguna da Orion: Luis Mariren, Joxe Migelen eta Mikelen ondoan ikusi dugu Bisigu festaren edizio guztietan. Garbi esango dizuet, geroz eta gehiago estimatzen ditut bere lanari buruz hizketan hasi eta begiak dir-dir egiten dieten pertsonak. Hemen duzue bat.

Sukaldea aukeratu zenuen? Nolatan? Zergatik?

Gurasoek jatetxerik izan ez arren sukaldarako ohitura handia izan dugu etxean. Gogoan dut sukalde gainera igo-tzen ninduela amak. Lapikoari begira orduak egindakoa naiz; handitu ahala barazkiak txikitzen jartzen ninduten. Institutuko garaian jatetxe batean egin nuen lan eta gus-tuko nuela ikusi nuen. Orduan erabaki nuen Galdakaoko

Goi Mailako Ostalaritza Eskolan sartzea.

Ikasketa prozesuan ezagutu zenuen Xixario jatetxea.

2008. urtean iritsi nintzen Xixariora. Ordurako hamar urte aritua nintzen sukaldari lanetan, eta jatetxe propioa irekitzea erabakia nuen. Baina, urtebeteko obra behar zuen gaur egun Porrua jatetxea daukagun lokalak.

Buruan neukan zer eskaini: Bilbon haragia leku dezentetan eskaintzen da, baina arraina parrilan jateko oso leku gutxi zeuden. Lagun batek oso garbi esan zidan: arraina parrilan egiten ikasteko segi Oriora.

Hain berezia al da gure estiloa?

Parrila bakarra da Oriokoa: laua, estatikoa eta sutatik oso gertu kokatzen da arraina. Segitutik oso harreman ona egin nuen Luis Marirekin, bi astebururako joan nintzen baina sei hilabete egin nituen bertan. Oriotarrak oso gertukoak zarete, norbera kutsatzeraino. Santutxukoa naiz



Ostegunetik igandera bisigu festan izaten da urtero Unai Campo, argazkian bigarrena.

“Lagun batek esan zidan: arraina parrilan egiten ikasteko segi Oriora.”

“Herriarrek geroz eta gehiago estimatzen dute etxeko produktuak erabiltzea.”

eta ez naiz Realekoa egin, baina arraunean oriotarra sentitzen naiz.

Udan hamar urte beteko ditu Porrue jatetxeak. Parrila da zuen lanabesa?

Hala da. Arrainaz gain mariskoa, denboraldiko barazkiak eta haragia txingarretan egiten ditugu: lanpernak, ilarak, kokotxak, denboraldian angulak, kabiarra, perretxikoak, txirlak, olagarroa, orburuak edo alkatxofak, mihi-arraina, legatza, atun gorria eta, nola ez, Bisigua Orio Estilora. Proposatzen dizuedan errezeta ere dastaketa menuan daukagu, parrilan egina.

Etxeko produktuak dira zuen ia denak.

Bai, Bizkaiko hornitzaileekin egiten dut lan, kartaren atzeko aldean dago zerrenda. Uste dut herriarrek geroz eta gehiago estimatzen dutela etxeko produktuak erabiltzearen filosofia, bertakoa balioan jartzea, hain justu. Gure gain daude hautu hauek.



libe
dietetika
elkadura aholkularitza



ORIO

eusko gudariak 35 :: ORIO
[sarrera Arrantzale kaleak]

943 53 64 94 :: 697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com

MENDIZABAL
AROSZTEGIA
*Neurriko arnasirak
eta egerlanak*

943 831 175
645 708 491
mendi@aroztegi.net

Aitzami bidea
Beti-Alel etxea
20810 Aia-Orio

Ile apaindegia
MARIJO



Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - behea
Tel. 943 13 47 29
ORIO



ORIA
hertz klinika

Orla Hertz Klinikak **ORTODONTZIA**
zerbitzu berria jartu du martean.

Prebentzioa estrobestekoa dela
jakinda, hartu aurre-erabakizunean sor-
daitzekaren arazoak.

Arrantzale kalea, 63 behea
20810 ORIO
Tel.: 943 83 36 45

OREKA
FISIOTERAPIA



*Tendinitisak
Lumbalgia
Artrosia
Zefaleak*

Masaje terapeutikoa,
bentsoak, akupuntura,
eskalio terapia,
osteopatia

943 13 35 37
Aritzaga kalea, 11 behea

ttipi



ttapa

943259695
ttipittapa.olhane@gmail.com
Eusko Gudarien, 15 - 20810 Orio

Sinergia | fisioterapia & ikerkuntza

• Lesioak: bihurturak, tendinitisak, zointiratuak, kontrakturak, hanka handituak, artrosia, kirurgia osteko birgaitzea, bizkar hezurreko arazoak, arnas gaixotasunak haur eta heduefak, lesio neurologikoak, haurdunaldirako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errehabilitazioa.

• Tratamenduak: terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, arnas fisioterapia, kinesiotaping-a, pilates, abdominaleko gimnasia hipopresioa (GAH), REDCORD.

943 13 05 77
685 71 85 95

Iturri Ordo 1, 3. solairu - Ormaiztegui
sinergia@sinergiaortegia.com



www.podologia-oinarri.com

943 575 361
Arrantzale 63 · 20810 · Orio

oinarri
PODOLOGIA ZENTROA



mauka

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL: 943 572 083
FAX: 943 571 190
i.asenjo@hotmail.es

INES ASEÑO
ABESLARI, 1
20810 ORIO

Katu
HORIA

ORIO

ESTROPALARI, 10
20810 ORIO
tel. 943 11 66 99

Larrialdia
668 89 11 29

LEUNDA
OKINGEDIA



ORDUTEGIA

ASTELEKINETIK: LARUNBATERA 7:00 - 20:30
IGARDE ETX. JAI-EGUNETAN 7:00 - 13:30

TEL: 943-89.66.67

azkue
karrozeria



Ubegun industrialdea, 7
20809 Aia-Orio
Tf/fax: 943 83 51 86
carroceriasazkue@hotmail.com

LARDIZABAL HERRI ESKOLA



“Asko asetzen gaitu jendea disfrutatzen ikusteak”

Antxon Sarasua

Musikaria eta gitarra irakaslea Aian

Non jaio zinen?

Eibarren jaio nintzen baina, jaio bezain laster, Bilbora joan ginen. Han 16 urte nituen arte bizi izan nintzen. Ordutik hona Zarautzen bizi naiz.

Zein zaletasun dituzu?

Musika da nire zaletasunik handiena eta nire lanbidea. Horrez gain baditut beste hainbat zaletasun: zinea, kirola ...

Zein musika edo musikari duzu gustuko?

Musika mota guztiak gustatzen zaizkit: klasikoa, rocka, jazza ... Ezin esango nuke pertsona edo musika mota konkretu bat. Batez ere jotzea gustatzen zait.

Noiz hasi zinen gitarrako klaseak ematen?

Duela hamabost bat urte edo. Nik pianoa ikasi nuen eta piano jotzailea naiz, baina gitarra betidanik jo izan dut.

Zein instrumentu jotzen dituzu?

Pianoa eta gitarraz gain bateria ere jotzen dut.

Izan al duzu idolorik pianoa edo gitarra jotzaile gisara?

Pianoa txikitatik izan dugu etxean eta modu naturalean sartu zitzaidan. Gitarran, batez ere, Dire Straits taldeko bakarlaria zen Mark Knopfler asko

gustatzen zitzaidan eta saiakera ugari egiten nituen talde horren doinuak errepikatzen.

Zure klase guztiak berdinak al dira?

Ez, noski! Klase batzuk besteak baino luzeago izaten dira edo egiten zaizkit. Ikasleak gustura badaude denbora azkarrago pasatzen da. Aldiz, ikasleak gustura ez daudela sumatzen badut as-tiroago. Denborarena oso erlatiboa da.

Nolakoa da zure ordutegia?

Hemen Aian astearte eta asteazkene-tan ematen ditut klaseak, arratsaldeko 15:30 eta 19:30 artean. Asteazken eguerditan beste 90 minutu ere ematen ditut.

Inoiz jo al duzu musika talde batean?

Bai, askotan jo izan dut. Musika egiten dugunontzat jotzea behar bat bezala da, asko disfrutatzen dugu. Baina jendaurrean ari garenean, eta jendea disfrutatzen ikusten dugunean, horrek ikaragarri asetzen gaitu.

Nolatan aukeratu zenuen musika?

Nik ez nuen aukeratu; musika gustatzen zitzaidan, etxean musika-tresnak bazeuden eta nik jolastu egiten nuen beraiekin. Gero bai izan zela aukeraketa bat musikatik bizitzea erabaki nuenen.



Mikel eta Xabier

Aiako paseo txikia

Zenbat aldiz pasa zarete Aiako paseotik eta pentsatu duzue txikia dela? Gu ere askotan joan gara, lagunekin, familiarekin, txakurrarekin ... Eta hiru buelta eman behar dira, gutxienez, paseo luze bat emateko. Paseoa bera ondo dago: bistak, loreak,... baina motz xamarra dela iruditzen zaigu.

Gure ustez, beste berri bat eraikitzea edo orain dagoena handitzea izango litzateke egokiena. Horrela, herriari buelta emateko eta paseo on bat emanda joango ginateke etxera.

Badakigu herri guztian zehar paseo bat egitea zaila dela, aldapa asko dagoelako, baina gutxienez pixka-bat handitzea nahiko genuke. Aldapena ez da arazo bakarra: harriak, zuhaitzak eta animaliak ere badaude paseoan, baina hori konpon daitekeela uste dugu..

Halere, egia da, paseo berriak ez lukeela hain bista onik izango baina aldaketak merezi duela iruditzen zaigu.

Jende helduak ere eskertuko luke.

Beste berri bat eraikitzea edo orain dagoena handitzea da egokiena

Zergatik ez du Orioko Udalak kontu-hartzaile posturik?



Idazkaria, bizkarrez, udalbatzarrean eztabaidatutako gai guztiak jasotzen. KARKARA

Herriaren biztanleriaren edo baldintzen arabera, Orioko Udaleko idazkaritza lanpostuak hiru mailatan banatzen dira.

Maila edo sailkapen honek, baikoitzak dituen ahalbideak kontuan izanda, bere neurrikoekin egoteko eta lehiak edo eskubideak tartean baldin badaude horietan berdintasunez jokatzeko daude ezarrita.

Idazkaria soilik

Toki Administrazioiko gaikuntza nazionaleko funtzionarioentzat gorde-tako lanpostuak betetzeari buruzko uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuko 2.artikuluko b) atalean ezarrita daude 2.mailako Idazkaritza izateko —bi lanpostu: idazkari eta kontu-hartzaile bana—Udalek bete beharreko baldintzak: 5.001etik 20.000rako biztanleria izatea edo 5.001 biztanle ez izatearen kasuan gutxienez 3.000.000 euroko aurre-

kontua izatea direla

Oriok, 3.mailako Idazkaritza du gaur egun, hau da, langile bakar batek betetzen ditu bi eginbeharrak. Kontu-hartzaile lanpostu propio-rik ez dago herriko udalean, beraz. Herrian, 5.944 biztanle daude gaur egun, eta hamarkada bat igaro da Orioren biztanleria 5.000tik gorako kopuruetan dabilela. Aurrekontuetako diru-kopuruaren mugari dago-kionez, berriz, hamarkada bat baino gehiago dira dekretuan aipatzen den diru kopurua gainditu zela.

2014tik, gaur arte

Orain taldeak, gai honen inguruan Ogasun eta Pertsonal batzordeetan beste talde politikoei, 2014ko maiatzaren 29an idatzi baten bitartez, era formalean eskatu zieten kontu hartzaile lanpostuaren beharra:

Jakinda Orioko udala kontu-hartzaile izateko egoera legalean dagoe-

la, lanpostua sortzeko dagozkion tramiteak martxan jar dezala eskatzen da, udalaren egoera ekonomikoak uzten duenean bete ahal izateko.

Abenduaren 22an Ogasun eta Pertsonal batzordean Udal Gobernuak emandako erantzunaren arabera, erabaki hori politikoa izanik, talde politikoen esku dago lanpostua sortzea edo ez. Legealdia bukatzeaz egonda, ordea, azkenean 2015-2019ko legealdirako utzi zen gaia.

Miriam Uranga batzordekideak sinatutako idatzia gaia zein puntutan aurkitzen den adierazten du: *2015eko azaroaren 19an, hurrengo urteko aurrekontuak onartzeko garaian puntu hau jarri genuen mahai gainean: Kontu-hartzaile lanpostua izateko, Lanbideren Lanpostu Zerrendan txertatu behar da; eta ofizialki eskatu dugun arren, ez daukagu berrik.*



EAJ/PNV

Bi legealdi lanean

Orio 5.000 biztanle baino gutxiagoko herria izan den bitartean idazkari-kontuhartzaile lanpostu bat izan du, lanpostu batean bi funtzioak betez. Biztanleriaren igoerarekin, herri tamaina kategoria igo da eta Idazkari eta Kontu-hartzaile funtzioak betetzeko bi lanpostu aurreikusten dira. Hau guztia, hala ere, baldintzatua dago. Lanpostu ego-kitzapen berri hauek ezin dute pertsonalaren lanpostuetara bideratzen den gastua %1,5 baino gehiago gehitu. Gainera, lanpostu hau habilitazio nazionala duen pertsona batek bete lezake soilik. Orioko kasuan, bi baldintza hauek ezin daitezke bete. Izan ere, batetik, habilitazio nazionalako kontu-hartzaile zerrendak agortuta daude eta, bestetik, kontu-hartzaile figura honi lotuta, diruzain lanpostua ere gehitu behar denez, honek guztiak, bideratu ahal daiteken kostuaren gainetik egongo lirateke. Horregatik aurreko legealdian ere ezin izan zuten hau gauzatu. Hala ere, Orioko EAJk kontu-hartzaile bat egotea udaleko kudeaketarako mesedegarria izan daitekeela pentsatzen du eta horretarako, egin daitezken gestioak egingo ditu.



Orain

Arrazoiak ez dira falta

Zergatik ez dauka Orioko Udalak 2. mailako Idazkaritza eta horrek dakarren 2. mailako Kontu-hartzaile-tza? Legeak jartzen dituen bi baldintzak, bata edo bestea, biak betetzen ditu: hamar bat urte dira 5.000 biztanle baino gehiago dituela eta hogeitau urte inguru izango dira 3.000.000 euro baino gehiagoko aurrekontua duela. Esan daiteke baldintza horietan EAEko udaletxe guztiak Idazkaria eta Kontu-hartzaile lanpostuak dituztela. Denbora neurgailu bezala hartuta, urtea joan eta urtea etorri, bai Idazkaritza eta baita kontabilitate zerbitzua lanez gainezka daude eta nabaria da udaletxeko lanetan. Adibideak dozenaka jarri daitezke. Aurreko legealdian (2011-2015) krisi ekonomikoa zela eta 2012ko apirilean ateratako "Aurrekontuen Egonkortasuna" legeak galarazi zuen pertsonal gastuak gehitzea. Beste garai batzuetan gaude eta gaur egun malgutasuna ere bestelakoa da. Erabaki politikoa da eta Orain taldeak kontu-hartzaile lanpostua sortzea askotan eskatu du.



EH BILDU

Arazoa bideratu ezinik

Legealdi honetan agerikoak dira Orioko Udalaren funtzionamenduan dauden hutsuneak. Bulegoetan lan-kargak handitzen doaz, erabakiak hartzen dira eta, horiek gauzatzeko bidean, asko luzatu edo bidean galtzen dira. Egoera kaskar hau hobetzeko asmoarekin enpresa bat kontratatu zen duela urtebete, 40.000 euroko aurrekontuarekin. Departamentuen arteko koordinazioa hobetzeko, organigrama prestatu eta langile bakoitzari dagozkion funtzioak zehaztu behar zituen lan horrek. Kontu-hartzailea hartzeko proposamena aurreko legealdian egin zuen Orain Taldeak eta, lan horren bitartez, kontu-hartzailearen beharra zenbaterainokoa den argitzeko itxaropena genuen Orioko EH Bildun. EAJk ez dio behar adinako jarraipenik eman lanari eta, ondorioz, nahi baino askoz motelago doa. Arazoak bere horretan jarraitzen du.



Gaia

Lau urte konponbiderik gabe

Legealdi hau, pertsonalaren inguruko arazo larriekin hasi zen. Udalaren funtzionamendurako beharrezkoak diren hainbat funtzionarioen plazak betetzeko behararekin, arazo horien artean. Gainera, Lanbideren Lan-postu Zerrendan ez daude langile guztiak edo eguneratutako organigrama bat behar da. Lau urte igaro dira eta azaldu berri dutan egoera berdinarekin jarraitzen dugu, nahiz eta konponbidea aurkitzeko enpresa bat kontratatu den. EAJ/PNVk bi urte behar izan ditu oraindik betetzeko dauden funtzionarioen plazak plenora eramateko. Garbitzailearen postua soilik bete baita. Horrez gain, premiazko postu garrantzitsuak bete beharko dira ahalik eta azkarren datorren urte honetan, hainbat langile jubilatuko direlako. Guzti honengatik, Orioko PSEk uste du gure udalean Kontu-hartzailea izatea beharrezkoa dela une honetan, eta arazoak konpondu behar direla, hala nola LPZ-rekin dagoen arazoa, ireki gabeko epeak eta udaleko aldi baterako langileen arazoa.

Aiako harri-jasotze jaialdia, irudietan



Harri jasotzeko lau marka saiakera izan ziren pasa den urtarrilaren 20an, igandean, Aiako Dema Plazan.

San Anton eguna ospatzeko jaialdia Aiako Idi Proba Elkarteak antolatu zuen.

Imanol Illarramendi 'Kortaberri', Gorka Etxeberria, Aimar Galarraga eta Julen Diez harri-jasotzaileak beren markak hausten saiatu ziren.

'Kortaberri' aiarrak 188 kiloko kubi-koarekin jardungo zuen lanean, bost

minutuko txandan. Denbora berdinean aritu zen lanean Ortzaikako Gorka Etxeberria ere, baina honek 190 kiloko errektangularrarekin jardungo zuen.

Aimar Galarraga oriotarra eta Julen Diez urizahartarra (Araba) hiruna minutuko txandan aritu ziren, eta biek harri astunagoekin jardun zuten. Galarraga 235 kiloko errektangularrarekin saiatu zen marka hausten eta Diez 207 kiloko errektangularrarekin.

Illarramendi aiarrak hiru jasoaldi eman

zizkion bere harriari. Diezek, aldiz, bi aldiz jaso zuen 207 kiloko errektangularra, eta Galarraga oriotarrak 235 kiloko errektangularrari jasoladi bat eman zion.

Bestalde, Ortzaikako Etxeberriak 190 kiloko errektangularrarekin egin nahi zuen marka, baina lehen ahaleginean harriak ihes egin zion, eta hurrengo saiakeretan ere ezin izan zuen jaso.

Enkantea

Arraza anitzeko ganaduen enkantea egingo da Aian igandean



Aiako Testaje Zentroan arraza anitzeko ganaduen 5. enkantea egingo dute datorren igandean, urtarrilaren 27an. Goizko 10:30ean ganaduaren aurkezpena egingo dute, eta lau arraza aurkeztuko dituzte: Limusin, Blonda, Txarolesa eta Pirenaika. 11:00etan hasiko da enkantea.



Rosa Mari eta Faustina Agirre: “Hiru hamarkadetan, bidelagun izan ditugu herritarrak”

Abenduaren 31n itxi zituen ateak Uraitz lurrindegia, 33 urteko ibilbide luzearen ondoren. Rosa Mari eta Faustina Agirre ahizpak Orioko merkataritzan eragile garrantzitsua izan dira, eta hiru hamarkadetako bizipenak izan dituzte hizpide.

Urtarrilaren 31n itxi zenuten Uraitz lurrin denda. Zer dela-eta?

Rosa Mari Agirre: Gu erretiratu egin gara, eta ez du jarraipenik izan negozioak. Etorri zaizkigu hainbat lagun galdezka, baina gu izan gara zenbakiak aurkeztu eta negozioa ez dela bideragarria argi esan diegunak. Guk ez ditugu besteak itota ikusi nahi, negozioa errentan hartu, eta horrek dakartzan gastuak ordaindu ezin dituztelako. Kalleko pertsona batek esan zidan, negozioa alokatzen bagenuen, urte betean behintzat errenta kobratuko genuela, baina kontzientziak ez dit hori egiten uzten. Guk lana egin dugu, eta bizitzeko adina badugu, ez ditugu gainontzekoak gaizki ikusi nahi. Galdezka etorri zen batek eskerrak eman zizkigun egia esateagatik.

Azken urtetan negozioa ez dela bideragarria izan aipatu duzu. Zergatik uste duzue izan dela hori?

Faustina Agirre: Usurbilgo Urbil merkatalguneko lurrindegia handiek min asko egin ziguten, garai horretan asko jaitsi baitziren salmentak. Horrez gain, gaur egun interneteko salmenten aurka ere ezin dugu lehiatu lurrindegia txikiak, produkturen bat eskatu eta hurrengo egunean etxean jaso baitzakete herritarrek, prezio oso onean. Egoera horretan oso zaila da negozioa aurrera ateratzea, eta jakin bagenekien erretiratzen ginenean itxi egingo genuela denda. Azken urtetan lurrindegia irekita izan dugu lokala Rosa Marirena zelako, eta ez genuelako errentarik ordaindu behar, bestela ezinezkoa izango litzateke.

Dena dela, garai onak ere ezagutu dituzue. Nolakoak izan zen hasiera?

F.A.: Hasieran Rosa Mari ireki zuen lokalaren zati bat, masaje eta estetika zentroa irekitzeko, eta gero etorri zen lurrindegia.

R.M.A.: Lokal horrek bizitza handia izan du. Aspaldi drogeria izan zela kontatu zidan herritar batek, bolbora ere saltzen omen zuten bertan. Gero bizartegia eta etxebizitza izan zen, eta nik erosi nuenean masaje eta estetika zentroa jarri nuen. Horrela hasi nintzen, eta Faustinari proposatu nion lurrinde-

gia jartzea, estetika zentroaren osagarri modura. Argi genuen dendak funtzionatzen ez bazuen itxi egingo genuela, ez baikenuen buruko minik nahi. Hasieran zalantzak izan genituen. Izan ere, material desberdinetako bitxiak saltzen ere hasi ginen, baina Orion garai hartan bitxiak urrezkoa ez baziren, ez zutela baliorik uste zuten askok; beste pentsamolde bat zen. Testuinguru horretan lurrindegia irekitzera ausartu ginen, eta 33 urte bete ditugu. Gogoan dut, dendan saltzeko lehen produktuak Bartzelonatik ekarri nituela, maleta handi batean sartuta.

F.A.: Abenduaren 24an ireki genuen lurrindegia. Aurreko egunean goizeko seiak arte denda muntatzen eta txukuntzen aritu ginen, eta Rosa Mari Gabon Egunean goizeko zortzietan iritsi zen Oriora Bartzelonatik. Herrira heldu zenean, Don Andresekin topo egin zuen, eta egun horretan bertan denda ireki behar genuela eta bedekintzera etortzeko eskatu zion. Ondoren, denoi ohetik jaikiarazi gintuen, eta eguerdian inauguratu genuen denda.

Hasieran zalantzak bazenituzten ere, 33 urte bete dituzue?

F.A.: 33 urtez zabalik izan da Uraitz lurrindegia, eta pozik gaude egindako lanarekin.

R.M.A.: Eskerrak eman nahi dizkiegu oriotarrei, hiru hamarkadetan zehar bidelagun izan ditugulako. Alargun geratu nintzenean, pentsiorik gabe geratu nintzen, eta Uraitz lurrindegia eta estetika zentroak lana egiteko aukera eman dit; familia aurrera ateratzeko ezinbestekoa izan da niretzat. Zarautzen bizi ginen eta bi umerekin etortzen nintzen Oriora, ikastolara eramaten nituen eta herrian bertan lan egiten nuen; sukaldea genuen lurrindegian, eta han bazkaltzen genuen. Gogoan dut hasieran, udan irabazten nuenarekin pasatzen nuela negua, arrantzaleek bezala. Hala ere, oso babestuta sentitu naiz beti. Orio herri txikia da, denok ezagutzen dugu elkar, eta laguntasun handia sentitu dut herritarrengandik. Egun osoa lanean pasatzen nuen, eta haurrak Goiko Kanean jolasten ari baziren, bizilagunen batek deitzen zidan bertan zirela esanez. Harreman sare horiek oso garrantzitsuak dira.

AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Alokairua

- Logela alokagai. Orion Etxebizitza berria eta logela handia, ohe handiarekin, mahaiarekin eta armairuarekin. Etxeak 30 metroko terraza du. Tf: 652551550
- Logela alokatuko nuke Orion. Beste laguneren baten bila ere banabil, elkarrekin etxebizitza bat alokatzeko. Tf: 688690385
- Apartamendua alokagai Orion, trasteroarekin. Tf: 648614769

Lan bila

- Ume zaintzan zein etxeko lanak egiteko lan bila dabilen 29 urteko neska euskalduna naiz. Adin desberdinetako haurrekin hezitzaile eta irakasle bezala esperientzia dut. Tf: 638730544
- Neska bat lan bila. Etxeko lanak, umeen zein adinekoen zaintza, garbiketaren lanak, asteburuetan zein aste tartean; baita orduka ere. Esperientzia eta erreferentziekin. Tf: 661133295
- Neska euskalduna, haurrak zaintzeko, etxe-

- ko garbiketaren egiteko eta klase partikularren emateko. Lehen hezkuntzan graduatua. Umeekin esperientzia handikoa. Tf: 636312231
- Neska lan bila. Barne-zaintzailea, garbiketaren lanak, eta zaintza. Esperientziaduna, Orion bizi naiz. Marlin. Tf: 632582365.
- LH-ko gradua egiten ari den neska oriotarra, LH-ko ikasleei klase partikularren emateko prest, edozein irakasgai. EGA (euskara) eta FIRST (ingelese) agiriak ditut. Rut Atxega. Tf: 678083496.
- Ume zaintzan lan egiteko prest dagoen neska oriotarra naiz. Tf: 676441327

ITSASOA

	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	02:18 eta 14:45	08:22 eta 20:39	○
02	03:04 eta 15:29	09:08 eta 21:21	○
03	03:44 eta 16:06	09:48 eta 21:58	○
04	04:19 eta 16:39	10:24 eta 22:33	○
05	04:52 eta 17:11	10:58 eta 23:06	○
06	05:24 eta 17:42	11:31 eta 23:39	○
07	05:55 eta 18:13	12:03 eta	○
08	6:26 eta 18:44	00:12 eta 12:36	○
09	06:57 eta 19:16	00:45 eta 13:10	○
10	07:31 eta 19:51	01:20 eta 13:46	○
11	08:09 eta 20:33	1:58 eta 14:27	○
12	08:55 eta 21:25	2:43 eta 15:16	○
13	09:55 eta 22:34	03:41 eta 16:18	○
14	11:14 eta 23:57	04:53 eta 17:33	○
15	12:38 eta	06:13 eta 18:47	○
16	01:14 eta 13:50	07:26 eta 19:53	○
17	02:17 eta 14:49	08:27 eta 20:49	○
18	03:11 eta 15:40	09:21 eta 21:39	○
19	04:00 eta 16:28	10:10 eta 22:27	○
20	04:47 eta 17:13	10:57 eta 23:12	○
21	05:32 eta 17:57	11:42 eta 23:57,	○
22	06:17 eta 18:41	12:27 eta	○
23	07:02 eta 19:26	00:42 eta 13:11	○
24	07:48 eta 20:13	01:28 eta 13:57	○
25	08:37 eta 21:05	02:17 eta 14:47	○
26	09:34 eta 22:07	03:11 eta 15:43	○
27	10:46 eta 23:25	04:16 eta 16:51	○
28	12:12 eta	05:35 eta 18:09	○

ZAINTZAKO BOTIKAK

- OTSAILA:
- Ilean, Iriarte.
 - 2an eta 3an, Esparza.
 - 4an, Gallo.
 - 5ean, Lasa.
 - 6an, Zulaika.
 - 7an, Iriarte.
 - 8an, Redondo.
 - 9an eta 10ean, Gaminde.
 - 11tik 15era, Lasa.
 - 16an eta 17an, Larrañaga.
 - 18an, Zulaika.
 - 19an, Etxeberria.
 - 20an, Esparza.
 - 21ean, Gaminde.
 - 22an, Larrañaga.
 - 23an eta 24an, Iriarte.
 - 25ean, Etxeberria.
 - 26an, Zulaika.
 - 27an, Iturria.
 - 28an, Larrañaga.
- Etxeberria:** Gipuzkoa Kalea, 17, 943 83 23 98 Zarautz
- Esparza:** Santiturturri plaza, 5-6 943 50 4783 Zarautz
- Iriarte:** Zinkunegi Kalea, 5-F. 943132983 Zarautz
- Iturria:** Kale Nagusia, 12 943 83 29 70 Zarautz
- Redondo:** Urdaneta, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
- Gaminde:** Gipuzkoa Kalea, 68 943 13 29 83 Zarautz
- Gallo:** Zigordia Kalea, 17 943 13 40 19 Zarautz
- Redondo:
- Zulaika:** Bizkaia kalea, 41 943 13 39 94 Zarautz

Aia

Podologoa

- Otsailaren 23an, podologoaren bisita.

Mendi lasterketa

- Otsailaren 24an, Aiako VIII. Mendi Lasterketa. Irteera herriko plazatik, 10:30ean.

Orio

Bingoa

- Asteazkeneko bingoa Kultur Etxean, 16:30etik aurrera.

Dantza

- Otsailaren 23an, larunbatean, Musika Eskolako haurren dantza ekitaldia, Karela Kiroldegian.

Usurbil Autoak
 Zumartegi Industrialdea, Altzazorra kalea, 24
 20170 Usurbil (Gipuzkoa)
 usurbilautoak@gmail.com
 Tel: 943 36 10 79

SALMENTA - MEKANIKA - KARROZERIA

677 109 902 usurbilautoak@gmail.com

PANDA 4x4 **TALENTO** **QUIRO 2**

SOLAR **SPORTAGE** **SORENTO**

STONIC **NARO HYBRID**

Villar Autobusak
 Bidai nazionalak eta nazioartekoak
 83 eserleku

Autocares Villar
 Orio (Gipuzkoa)
 Tel: 609402537
 Email: autocaresvillar@yahoo.es
 www.autocaresvillar.com

ZINKU ERAIKUNTZAK

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzaren erreformak
- Teilatuak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

deitu eta eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Andor Zinkumegi
667 740 279

Sagasti LEIHOAK
 Tel: 943 13 00 77 - Fax: 943 13 71 50
 sagasti@sagastileihoak.com
 Auzentzia kalea, 65
 20810 Orio

Kalitatzeko materialak
 PVC eta aluminioa • Isolamendu termiko eta akustikoa
 Salmenta osteko zerbitzua
 www.sagastileihoak.com

GARMENDIA
 Higiezin Agentzia
 Aholkularitza
 Aseguruak

info@egarmendia.com
 Tf: 943 834 466 - Fax: 943 132 941
 Ibai Ondo, 1 - 20810 Orio

garay manufacture

SUKALDEAK

www.garay.eus

1985etik sukaldeak atzeratzen lanetan

HITZORDUA ESKATU ETA
 LANTEGIRA HURBILDU
 Olabidea aldea 1
 (Errotaberri industrialdea)
 20.800 Zarautz
943 13 31 09

LAGUNDU PLASTIKOAK MURRIZTEN

- 1-ZUZENEAN OTARREAN SARTU PRODUKTUA
- 2-BEHAR BADUZU, ESKATU ETA ERAMAN ETXERA GURE POLTSA BERRERABILGARRIAK
- 3-HURRENGOAN, ETXETIK ELKAR DITZAKEZU POLTSAK

GOZATEGI
FRUTADENDA

Moda eta osagarriak
ganduz gure sukalde!

Garbise Aragoi
Merino plaza, 5 - Orio • 635 706 265

Joseba
 AROZTEGIA • CARPINTERIA

687 683 427
 josebaarotza@gmail.com

ATEAK
 ZOKALOK
 ARMAIRUAK NEURRIKA
 LEIHOAK
 ESKAILERAK
 AROZTEGIA OROKORREAN

IZARRA ELEKTROGAILUAK

ESKANTZA BEREZIAK

POW!
 LEHEN 725€
 ORAIN 499€
Bosch

ZAP!
 LEHEN 265€
 ORAIN 199€
ZANUSSI

OHAY!
 LEHEN 255€
 ORAIN 189€
ZANUSSI

BANG!
 LEHEN 39€
 ORAIN 28€
TOSSINO

Eusko Gudari, 44 - Tel: 943 83 38 81 - 20810 Orio (Gipuzkoa)
 izarraelectrodomesticos@gmail.com

Dudik eta gabe, Zaragueta



Matrikula epea: Urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra

Bilera informatiboa eskolan (elebiduna): Urtarrilak 24 (18:00etan)

Eskola zabalik: Urtarrilak 26 (10:30etik 12:30era)

Tel. 943 89 40 52 **E-posta:** 012137aa@hezkuntza.net